

# GUaiXE.eus



**Irañetan bihar inauteriak ospatuko dituzte**



Sakanerria >> 11

**Alex, betirako. Arbizun larunbatean egindako omenaldian bere falta sentitzen zutela esan zuten senideek, lagunek eta ikaskideek**



Sakanerria >> 3

## Gizarte Zerbitzuen finantziazioa %69,43 gora

Hiru mankomunitateak finantzatzeko, Babestutako Gizarte Enplegu proiektuetarako eta gizarte-

larrialdietarako 1.030.407,35 euro izan ziren 2016an, aurreko urtean baino 422.240,6 gehiago

Finantzazio horrek udalek 36 pertsona kontratatzea ahalbiderratu zuen >> 9

**Satrustegiko sareak berritzeko lanak hastear**

>> 5

**Lakuntzako liburutegia udaletxeko ganboikora**

>> 7

**Kantu-eskean Santa Ageda bezperan, bihar**



11 auzipetu altsasuarren gurasoek Altsasun aurkeztu zuten manifestua ostiralean, eta Iruñean atzo.

## Gurasoen manifestua, abokatuen iritzia eta epailearen sumarioa

>> 7-8



**Altsasuko eta Olatzagutiko kinto festak hemen dira >> 11**



**Bakaikoak Etxarrin jokatu du gaur >> 12**



Mendeetan isilarazitako gure herriaren memoria berreskuratu eta eraiki dezagun.

Egin zaitez Enneco lagun → [www.enneco.org](http://www.enneco.org)

Enneco MECNA proiektua da, beraz egindako aportazioen %80a itzuliko zaizu errenta aitortzean. Zatoz auzolanera eta izan zaitez Sakanarako bereizgarri izango den proiektu berritzaile honen parte.

Ekainetik aurrera ateak zabalduko ditugu.

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



**Zorionak June!**  
9 urte jada! Gure etxeko sorgina handituz doa, segi orain arte bezain jator, alai, euskaldun...artista bat zara! Asko Maite zaitugu! Familia guztiaren partez muxu pilaaaa

**Zorion agurrak**

**4,00€**

**Bazkideek:**

**3,50€**



## Otsailak

# 3-9

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

### Musika

**En Tol Sarmiento eta Guda Dantza.** Otsailaren 3an, ostiralean, 23:00etan Olatzagutiko Maisunenea gaztetxean.



**El Sonido de la Metralla eta Sofokaos.** Otsailaren 4an, larunbatean, 23:30ean Iturmendiko Ximona gaztetxean. **Gaztetxearen VI. urteurrena.**

**Brigada de la Cólera, Bendiak, Aitor Lizarraga eta Txen.** Otsailaren 4an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean. **Garraxi festa.**

### Dokumentalak

**Sta Ageda. Gonbidatuak izatetik, protagonista izatera.** Otsailaren 3an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Zinema

**Comancheria.** Otsailaren 3an, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 5ean 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.



**Printze txikia.** Otsailaren 5ean, igandean, 17:00etan Irurtzungo kultur etxean.

**Vaiana.** Otsailaren 5ean, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Silencio.** Otsailaren 9an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Bizikleta irteerak

**Aranaratzeko gaina (50 km.)** Otsailaren 5ean, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Bioitza kanpinetik. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

### Erakusketak

**Euskal Herriko inauteriak tantaka.** Otsailaren 15era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. **Javier Belasko.**

### Hitzaldiak

**Prestakuntza eta tokiko-garapena El Salvadorren; Saharako herriarendako testu liburuak sortzea.** Otsailaren 3an, ostiralean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Hizlariak: Itxipuru Taldea eta ANARADS.**

**Apostando por Altsasu y por Sakana.** Otsailaren 3an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlariak: Javi Olló, Unai Hualde eta Manu Aierdi. Geroa Bai.**

**Informazio hitzaldiak.** Otsailaren 6an, astelehenean, 17:00etan Urdiaingo udaletxean eta otsailaren 9an, ostegunean, Olatzagutiko kultur etxean. **Iñigo Aritzeta eta Txioika ikastolak.**

**Kabi proiektuaren aurkezpena.** Otsailaren 7an, asteartean, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Iñigo Aritzeta eta Txioika ikastolak.**

### Tailerrak

**Txarretarako maskarak.** Otsailaren 3an, ostiralean, 18:00etatik 20:00etara Arbizuko liburutegi ondoko gelan. 6-10 urtekoendako.

**Serigrafia.** Otsailaren 3an, ostiralean, 19:30etik 21:30era Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Dantzan ikasi: jota, zortziko...** Otsailaren 4an, larunbatean, 18:00etatik 20:00etara

Altsasuko lortia kultur gunean.

### Bestelakoak

**Korrikari ongietorria prestatzeko bilera.**



Otsailaren 3an, ostiralean, 18:30ean Bakaikuko auzoa.

**Ximona gaztetxearen VI. urteurrena.** Otsailaren 4an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Iturmendin.

**Txotx!** Otsailaren 4an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Foru plazan. **Gure Esku Dago.**



**Ikusi-makusi.** Otsailaren 5ean, igandean, 16:30ean eta 18:30ean Lakuntzako kultur etxean.

**LABen biltzar nagusiaren aurkezpena.** Otsailaren 9an, ostegunean, 16:00etan Irurtzungo kultur etxean.

### Deialdiak

**Altsasukoak aske.** Otsailaren 3an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko udaletxe parean.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Ilbeltzaren 27an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da.** Otsailaren 5ean, igandean, 12:30ean Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 5ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

## >> Iturmendi

### Gaztetxearen urteurren ospakizunak bihar

Sakanako gaztetxe gazteena da Iturmendiko Ximona. Sei urte bete dituela eta Iturmendiko Gazte Asanbladak ospatzeko egitaraua antolatdu biharko. **2011. urtetik herri-ri bizia ematen!** Iloa aukeratu dute aurtengorako. 11:00etan Santa Marinarentz abiaturako den mendi martxarekin hasiko da ospakizuna. Behin mendi gainean daudela, andretxean bazkalduko dute. Handik jaitsi eta, 18:00etan, Aizkozar elkarrean txokolate-jana izanen da. Santa Ageda bezpera izanik, koplak kantatzera 19:30ean hasiko dira. 20:00etarako pintxo-potea iragarri dute. 22:00etan, berriz, afaria izanen da. Urteurrena El Sonido de la Metralla eta Sofokaos taldeen konzertuekin despedituko dira.

## >> Irurtzun / Altsasu

### Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketak jokatu dira

Bederatzigarren aldiz jokatu da mus txapelketa euskal zazpi lurraldeetan. Herriz herriko kanporaketatik Nafarroako finalerako txarrelak banatzen ari dira ilbeltaz hasieratik eta hala egingen dute bihar ibarreko bi herrietan. Irurtzungo kanporaketa Pikuxar euskal txokoan jokatu da, 16:30etik aurrera. Altsasun, berriz, Zubiondo elkartean jokatu da, 16:00etatik aurrera, eta Alde Zaharreko tabernarien elkarrekin, Xurruetek, babestuta. Izena eman nahi duen bikote bakoitzak 20 euro ordaindu behar ditu.

**Ostiralero SAIOA**  
9:30ean  
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



Esataria: **Eneida**

Gaurko gaiak:

- Altsasuko auzipetuen gurasoen manifestua.
- Sakana herri eskolekin sortzen festaren aurkezpena.
- Errefuxiatuendako Lakuntzako material bilketa.

**beleixe** 107.3 FM  
www.guaixe.eus-en ON LINE

&gt;&gt; Arbizu

# Betirako, Alex



Alexen lagun bat bere omenez jarritako zuhaixkan lore sorta uzten.

**Bere falta sentitzen zutela esateko elkartu ziren larunbatean. "Arbizura etorri zinen. Eta hemen egonen zara betiko, San Juanen, gure bihotzetan, Beriainen magalean". Ermitaren atzeko aldean, gazteak San Juan ospatzen duten tokian pagoa landatu, aurrekua dantzatu, festetako atorra jarri eta lore eskaintza egin zioten**

Urte bete egin zuen asteartean. Etxarriko kinto ospakizunetan parranda egin ondoren, lagunak agurtu eta etxerako bidea hartu zuen Alexek. Goizean aita lagun-

du behar zuen. Errepidean eskuin aldetik joatea erabaki zuen, ibilgailuren bat pasako balitz auto-stopa egiteko. Batek aurretik eraman zuen. Gidaria ez zen gelditu eta Alex hil egin zen. Urteurrena gogoratzeko elkartu ziren larunbat eguerdian San Juan ermitan.

Bere lehengusuen izenean Josu Agirrek omenaldian hitza hartu eta gaztigatu zuen Alexek gau hartan egindakoa, eskuineko bide bazterretik herrira bueltatzea,

makina bat arbizuarrek egin dutela. "Herri txikia gara, denak ezagunak. Denok sentitu genuen mina berria entzutean. Nola da posible, pertsona bat, herritar bat, lagun bat harrapatu, lurtean botata utzi eta alde egitea? Gure burutan ez da sartzen. Ez dugu ulertzen hori egin zuenak nola eraman ahal izan duen karga hau urte osoan zehar. Eta bizi osoan nola bizi ahalko den zama horrekin".

Alexen guraso Blanki eta Ibo-

*Urte bat ez da askorik baina izan liteke luzea ez zaigulako xamur egiten gertatutakoa ulertzea zu bezalako mutil gazte bat modu horretan galtzea baina bertsotan erabakita dugu zu gogoratzeko kantua izan dadin tristura goxatzen duen haizea.*

*Haurra zinela agertu zinen eta gurea zortea gustuko izan zenuelako zuregatik ematea besteengatik behar zenean behar zena egitea eta giroa alaitzen zuen irri gozo ta bete azkar lortuaz irekitzea gure herriko atea.*

*Euskara azkar ikasi eta maiz zenekarren ahora elkarte eta behien artean ibiltzen zinen gustura. Gaur familia eta lagunak bildu gaituzu ondora goiz esan diguzu agur eta pasako da denbora Baina sekula ahazten ez dena betirako biziko da.*

**Koadrilakoak**

nen izenean Josu Reparazek hartu zuen hitza. "Momentu honetan haien sentimendua esker onarena baino ez da. Eskerrak, bihotzez, guztioi Alexen oroimena mantentzen lagundu duzelako. Zuen hurbiltasunak, zuen keinuak, zuen adiskidetasunak berotasuna eman dielako urte luze eta gogor hone-

tan". Ekitaldira hurbildu zirenean dako esker oneko hitzak ere izan zituen: "zuen presentzia beraien dako erabat garrantzitsua da".

## Esandako gehiago

Andra Mari ikastolako Itziar Aldazek Alexen irribarrezaba eta gozoa eta lagunaren artean agertzen zuen alaitasuna gogoratu zituen lehenik. "Hasierako garai haietan zuk eman zenion zuriotasunari kolorea. Nahiz eta guregana iritsi aurretik momentu zailak bizi izan zenituen". Familian eta ikastolan jasotako maitasuna eta elkartasuna "hasieran harrিতuta eta gero pozik" hartu zituela gogorarazi zuen Aldazek. Hala ere, zailtasunen aurrean ez zenuen zure irribarrea ezkutatu". Ondoren galdera luzatu zuen Aldazek: "Nork, zergatik moztu dizu Alex biziaren soka? Ez al daki zure hatsa beharrezkoa genuela? Ez al daki zure sokak berea moztu duela?"

Ikastolan Alexek izan zituen ikaskideak bere izenaren esanahia "gogoan eta bihotzean" zutela adierazi zuten. Hala, lau hizkirekin eta lau hitzekin, deskribatu zuten mutila: Alaia, Laguna, Euskalduna, Xumea. "Alex, beti izanen zara gure artean" gaineratu zuten.

# IKASTOLA EREDUA HEZKUNTZA ERALDATZEN



ANDRA  
MARI  
IKASTOLA



IÑIGO ARITZA  
IKASTOLA



TXIOKA  
Ikastola





Aingeru Mikeo

# Itsasoaz bestaldeko andreak zutik

**astekoa**

...y en eso llegó Fidel / Se acabó la diversión, llegó el comandante y mandó parar (Carlos Puebla). Ezkerretik urteak eman ditugu borrokan irmo neoliberalismoaren eta globalizazioaren ondorioen aurrean. Batetik, enpresen lekualdatze-engatik, langabezia eta lan-baldintzak izugarri txartu dira. Bestetik, TTIPa (AEB-Europa merkataritza libreko hitzarmena) bezalako egitasmoen aurka, horren atzean ezkututzen diren ekoizpen

ereduek gizateria eta mundua bera txikiziora daramatelako. Duela hilabete pare bateskas, hitzarmen horri ezetza emanez Nafarroako 30 udaletik goiti sinatu zuten, horien artean Ziordiak, Altsasuk, Urdiainek, Bakaikuk, Etxarri Arantzak, Lakuntzak eta Ergoienak. Bada, protagonistak berdindu gabe, habanerari ideia lapurtuta, bat-batean Trumpetorritan, esan du: aski!

Trump, showmana, ahoberoa,

matxista, arrazista eta nabarmena. Kritika gordinen hartzaile, eta, "guztiekin" bizkareman badiote ere, Presidente! Nahikoa izan ditu 140 karaktere, tuit bat, eta TTIPa etorkizunik gabe. Beste tuit bat, eta Ford auto-ekoizleak izoztu egin du inbertsioa Mexikon, eta horren orde eginen du Michiganen. Beste tuita eta Asiarekiko merkataritza libreko hitzarmena pikutara. Gero, Mexikoko mugako harresiaren gatazka eta Ekial-

deko herritarrekiko afera. American first aldarrikatzen du ozen. Aberatsa. Multinazional eta holding ekonomikoen aurka, eromena! Ekonomiaren marrazoak mutu, Wall Streetek irabaziak puztu egin ditu. Hedabideek, oro har, gaitzetsi dituzte neurri horiek. Ezkerreko esatariak jokuz kanpo, harriturik. Erabakietan ados, helburuetan sinesgaitz. Hala ere, pena, hemengo krisiaren gogorrean, ez Rajoyk, ez Barcinak, ez

beste inork, horrelako tuit bizkorrik idatzi ez izana.

Trump, burrunbatsu heldu da, indartsu eta konplexurik gabe. Tuit bidez, aldatzen ari da Chomskyk kritikatu zuen Munduaren Ordena Berria. Hala ere, ez dakiola doan atera bere harropuzkeria, Hertzainak gogoratu, *Si Vis Pacem, Parabellum* (bakea izateko, prestatu gerra). Dagoeneko, itsasoaz bestaldeko emakumeak zutik dira!

## barrutik kanpora

### Europa birziklapen helburuen alde

Europak aurrera darrai birziklapen helburuen alde eta hondakinak erraustean aurka. Oraindik zuzentzairenen batean eratu ez bada ere -legealdi honetan gauzatea espero dezagun-, Europako Batzordeak kide diren estatu guztiei, ustez hondakinetatik energia

berreskuratzen duten proiektuei diru iturri publikoak pixkanaka murrizteko eskatu die, hori baita zementugile errausketazaleek asmatu duten terminologia berria besteak beste izkutuko errausketa burutu eta horren truke kutxa publikotik dirua jasotzeko.

Erakundeak eztabaidatzen ari diren birziklatze helburuak handitzen ari direnez, hondakinaren joan-etorria txikituko dela espero da.

Prozesu ez-eraginkorrak kolokan daude. Honek, gure ustez, bete-bete hartuko litzuke hondakin koerhausketa proiektuak, hondakin gehienak errausketak ezduelako eskatzen den eraginkortasun maila inondik ere lortzen.

Zuzentzairenen aurkezpenean, Frans Timmermans Batzordeko

lehendakariordeak, errausketarako merkatuak sortzea "ahalik eta gehien" ekin behar dela adierazi zuen. Ildo hori jarraituz eta beti ere jasangarritasuna kontuan hartuz, Batzordeak, hondakin kudeaketa prozesuan ierarkia nola aplikatzen den argitu nahi du, azken tokian utziz koerhausketa (hondakinak, martxan dagoen ekoizpen prozesu bat aprobetxatuz egitea, zementu ekoizpena kasu).

Pixkanaka bada ere, goi erakundeetatik ere urrats txikiak ema-

ten ari dira hondakin koerhausketa alde batera uzteko, errausketa mota arriskutsuena, ingurumenaren ikuspuntutik jasangaitzena eta beste errausketa edozein mota baino kontrol makalagoak dituena izateaz gain, eraginkortasun eskasenekoa ere badelako. Dirulaguntza publikorik gabe, beste hondakin kudeaketa eredu batzuekin lehia desleiala egiteko abantaila gutxiago izango dute, dudarik gabe.

**Hiru Mugak Batera plataforma**

## hara zer dien

### Jubilazio-pentsioetatik emakumeen giza eskubideetara

Aurreko astean UGT sindikatua- ren jubilazio-pentsioei buruzko ikerketa irakurri genuen Nafarroako egunkarietan. Datuen arabera emakumeen pensioak 512,33 euro txikiagoak dira h ilean, gizonenak baino. Ikerketaren arabera, honek esan nahi du jubilazio-pentsioen genero aldea %33,60koa dela, soldaten aldea

baino 4 puntu gehiago, une honetan %29,65koa baita.

Informazioa ez dugu errepikatuko, baina gaia zabaldu nahi genuke, lanaren garrantzia zein den ikusi eta gure bizitzan zer nolako eragina duen ikusteko.

Argi dago lanak erabat baldintzatzen gaituela jubilazioan, sistema publikoak ordaintzen diz-

kigulako pensioak eta hauek lan-sarien eta zergen araberrakok direlako. Beraz, gutxiago kobratzen dutenek pensio txikiagoak izango dituzte; are gehiago, lanaldi partzialak egin dituztenei, edota urte gutxiago lan egin dutenei jubilazio-pensioak murriztuko dizkiete. Dakigunez, gaur egun pertsona ugari daude egoera hauetan, baina jakin ere badakigu pertsona hauen artean emakumezkoak direla gehienak, lanaldi osoa lortzen ez dutelako, seme-alabak edo gurasoak zaintzen dituztelako, lanaldia eta etxeko lanak ezin dituztelako bateratu, edo krisi honetan enpresek

gizonak aukeratzen dituztelako lanpostuak betetzeko...

Baina helduak garenean ere asko baldintzatzen gaitu lanak: ongizate babes sistema (batez ere langabezia) lanean eta lan-sarrietan oinarrituta dago; baita osasun sistema ere, orokorrean osasun txartel baten titularrak langile bat baita, hobe esanda, gizarte segurantzaren ordaintzen duena, eta besteak, lan egiten ez duten familiako beste pertsona batzuk, horren menpe daude; etxebizitza izateko eskubidea ere lanean oinarritzen da, dirua kobratzen ez duenak ezin du banku etxetako mailegu bat lortu, ezta babes ofizia-

leko etxebizitzarik ere.

Ez da soilik lan egiteko eskubidea, honekin batera beste eskubide asko lortzen baititugu... baina lanaz ari gara edo enpleguaz? Nork dauzka eskubideak: lana egiten duenak edo lan-saria kobratzen duenak? Noiz baloratuko dira kobratu gabe egiten diren lanak? Besteak egiteko hauek ez dira beharrezkoak, ala?

Ángeles Duran soziologoak, esaten duen moduan 'lana' eta 'enplegua' ez dira soilik bi hitz desberdinak, bi politika desberdinak baizik.

**Emakumeen Bilgunea**

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago dute gutunetik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru

horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak

asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen

derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275.**

### Eskerrak eman nahian

Aiora Barandiaran Arrese, Alex Jakaren etxeko izenean

Larunbatekoa ederra izan zen. Iazko urtean gizakiaren alderik ankerrena ezagutzeko aukera izan baguen, joan den larun-

batean justu kontrakoa ikusi eta sentitu genuen.

Hasiera gogorra oso! Buru makur, sabela estuturik, ia ezin

arnasarik hartu igo ginen San Juanera. Bertan, momentu zailak pasa genituen, malkoak begietatik isuri nahian, ihes egiten utzi ala ez... amorrua eta maitasunaren arteko sokatira nabaria zen.

Baina eguzkia lagun, eta berriro ere herriaren elkartasunari esker, arnas berria hartzeko aukera izan genuen. Birrikak bete, buruak jaso eta xume-xume Alexi merezitako agurra, maitasunez bete emateko

aukera izan baikenuen bertaratutako guztien artean.

Benetan eskertuta gaude etxekoak!

Elkartasun une magikoak sentitu genituen eta ez dugu hitzik, une haiek magiko egin zenituzten guztiei eskerrak emateko ere!

Egoeraren gogortasun eta iluntasuna, zertxobait leundu eta argitu baitiguzue.

Eskerrik asko bihotzez.

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
**MAKETATZAILA:** Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

**ZUZENTZAILEA:** Miren Alonso  
**ARGITARATZAILA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILA:** Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus  
**DISEINU ZERBITZUA:** GK • Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**BAZKIDEAK** 

**Mank**  
s a k a n a

 **Nafarroako Gobernua**  
Gobierno de Navarra

**AIERDI LEHENDAKARI ORDEAREN HITZALDIA:** Geroa Baik antolatutako hitzaldi batean parte hartuko du Manu Aierdi Nafarroako lehendakari ordeak: Altsasu eta

Sakanaren alde egiten. Berarekin batera, koalizioak antolatutako hitzaldian, Javier Olló eta Unai Hualde izanen dira.

# sakanerria >>

## >> Arakil

# Satrustegiko lanei aurki berrekinen zaie

**Udalaren aurrekontuko inbertsio handiena da, udaletxeko igogailuarekin batera**

Arakilgo Udalak 1.257.122 euroko aurrekontua izanen du aurten. Udalak aurten eginen duen inbertsio nagusia Satrustegiko sareen eta zoladuraren berritzea izanen da. Nafarroako Gobernuari bizpahirutan lanen premia izatera eskatu ondoren, Arakilgo Udalak baiezkotzea jaso zuen eta inbertsioaren erdia inguru foru administrazioaren laguntzarekin pagatuko du udalak. 200.000 euroko mailegua eskatzeko asmoz udalak. Baina kopuru hori txikitu daiteke lanak ematerakoan Construcciones Valeriano Santesteban enpresak aurreikusitakoa baino %24 merkeago eginen dituela jakinarazi baitu, 560.000 euro inguru. Enpresak abenduan aurreneko lan batzuk egin zituen, eta aste batzuetako etenaren ondoren, aurki berrekinen die.

Arakilgo udaletxeko igogailua jartzeko ere foru administrazioaren %70eko laguntza jaso du udalak. 89.258,45 euroko inbertsioa

egin behar da. Arakilgo udaletxean igogailua kanpotik jarriko da, erabilera publikoa eta udaletxekoa uztartzeko aukera emanez. Udaletxearen zehar-aldean jarriko dute. Horrela, Aralar kalean dagoen aparkalekutik osasun etxera, udaletxeko sarrerara igotzeko aukera izanen du edozeinek, baita Arakilgo udaletxean gora eta behera ibiltzeko aukera izanen da. Irurtzungo Udalak aukera egokia zela uste du eta hitzarmen bidez, baimena emanen du.

### Hirigintza plana

Nafarroako Gobernuak 2014ko garagarrilean jarrera aldatu zuen arte, Arakilgo Udalaren hirigintza plana gelditu zen. Gobernutik planean Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa jasoa egon behar zela zioten eta Arakilgo Udalak horri uko egin zion. Zazpi urtez, ez atzera, aurrera. Arakilgo Udalak aurreikusitako plana moldatu egin behar izan du, etxebizitzaren eraikuntza 600dik 300era jaitsiz. Lurraldearen Okupazio Estrategia eta Eredua



Satrustegiko kaleetan sartuko dituzten hodiak.

zehaztu zuen 2014ean. Baina zazpi urte horietan legedia aldatu egin da. Udalean parte-hartze prozesua egitea aurreikusia zuten eta legeak orain horretara behartzen du. Arakildarrekin batetik eta industriako eta abeltzaintzako sektoreetako ordezkariekin bilera monografikoak egin asmo du udalak. Udaberrian izanen da hori. Urtea despeditzerako hirigintza plana despeditu nahiko lukete. Plana egiteak 72.000 euro inguru balio du eta %70 gobernua diru-laguntzarekin ordainduko da.

### Kontratazioak

Arakilgo Udalak joan den urtean ibarreko hiru langabetu kontra-

tatu zituen Nafar Lansareren laguntzarekin. Eta, Irurtzun aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen babestu enplegurako beste pertsona bat ere. Udalean aurten ere kontratazioak egiteko asmoa dute, urte erdiko iraupenekoak izanen lirateke, baina kontratu kopurua oraindik ez dago zehaztuta.

Mankomunitatearen Iturraskarri programan ariko diren langileen zereginetako bat Arakilgo bideen sarearen mantenua izaten da. Sare horrek, iparraldetik, Irañeta eta Hiriberri lotzen ditu. Orain hegoaldeko abiatuko dira, ibilbide sare borobila osatu asmoz. Udalak 6.000 euro inguru bideratuko ditu horretarako.

## Udalak hirugarren alkatea izanen du



Ilbeltzaren aurreneko astean Gregorio Santesteban Nuñez Arakilgo alkatea dimisioa eman zuen. Udal ardurak uzteko arrazoi pertsonalak eman zituen. Santestebanek 2015eko agorriaren 27an hartu zuen kargua, Arakilgo Independenteen zerrendaburu eta alkate zen Ruben Goñi Urrozek udala utzi eta Nafarroako Gobernuko Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari kargua hartu ondoren. Arakilgo Independenteez zinegotzi kargua bete eta alkate berria aukeratzeko bilkura egin bitartean, Maria Paz Gonzalez Sagües alkate-ordeari da udalaren eguneroko kudeaketaz arduratzen.

## >> Urdiain

# Itsajuek galdeketa iragartzeko

Urdiaingo Gure Esku Dagoko kideek itsajuek leherrarazi zituzten domeka eguerdian. Plazara hotsegin zituzten urdiaindarrak. Erabakitze eskubidearen alde dauden hainbat urdiaindarrak bat egin zuten deialdiarekin. Guztiek talde argazkia egin zuten eta, ondoren, Gure Esku Dagok auzatera gonbidatu zituen. Gaz-

ta eta lukainka izan zituzten dastatzeko.

Domekan egindako argazkiarekin batera Urdiaingo Gure Esku Dagok etxeetara aurten antolatu nahi duten galdeketa inguruko informazioa banatuko dute. Horrekin batera, galdeketa hori babesteko sinadurak biltzen hasiko dira. Gure Esku

Dagok ahalik eta urdindar gehien babesa eskuratzeko asmoa du. Jakinarazi digutenez, "ahalik eta jende gehiena parte hartzea nahi dugu, baita iritzi ezberdinak entzun ere". Urdindar talde batek eratu du Gure Esku Dago. Haiek lanean hasi dira, baina taldean edozein sartu daitekeela gatzigatu dute.



Talde argazkia egin zuten domekan urdindarrek.

## >> Altsasu

### Galdeketa alde, txotx!

Altsasuko Gure Esku Dagok erabakitze eskubidea praktikan jarri nahi du eta herri galdeketa antolatu du garagarriaren 18rako. Hura prestatu ahal izateko gutxienez altsasuarren %10en sinadurak jasotzea behar dute. Taldea horiek eta gehiago biltzeko lanean ari da eta hilaren 28ra arte asmo hori dute. Sinadura bilketa hori bultzada emateko larunbatean, 19:00etan, txotx berezia antolatu dute Foru plazan.

**Txooooo!**

**JUANLUZENA SAGARDOTEGIA**

**MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik**

**ODERITZ**  
948 604 571 | 680 652 183

**SORGINAK** taberna

**LAKUNTZA**  
948 576 357

Konfiantzako aseguradora orokorra!

**MAPFRE**

Sea como sea tu casa **25%** de descuento

**Ongi pasa Santa Agedan**

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354  
jimazpr@mapfre.com  
San Juan 48 · ALTSASU

## SAKANA

## Lakuntzak hartuko du herri eskolen festa

**Apirilaren 1ean ospatuko da. Egun osoko festa izanen da: tailerrak, bazkaria, ikuskizunak, dantzaldiak eta sorpresak izanen direla aurreratu dute**

Zazpigarren urtez *Sakana herri eskolekin Sortzen* festa ospatuko da. Sortzen elkarteko ibarreko koordinatzaile Gorka Zabalak azaldu duenez, urtetik urtera festak hobera egin du bai antolakuntzan baita eskaintzan ere. “Hasieran guraso elkarten ardura zena, gaur egun hezkuntza komunitate guztiarena da: guraso elkarteak, ikastetxeetako zuzendaritzek eta herrietako udalek”. Ospakizuna “herrikoa eta parte-hartzailea” dela nabarmendu du Zabalak.

Festak hiru helburu dituela azaldu digu Zabalak: “Sakanan sare publikoan euskal hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeak ezagutzera eman, herrietara atera eta herritarrekin elkarlanean balorean jarriz. Horrekin batera, ibarreko herri eskola desberdinen hezkuntza komunitateen arteko harremana sustatu eta estutu. Eta, azkenik, eskualde komunitate gisa, elkartu eta jai giroan egun polit bat pasatzea”. Zabalak nabarmendu duenez, “festaren zutabe nagu-



Sakanako herri eskoletako zuzendaritza eta guraso elkarteetako ordezkariak aurkeztu zuten festa.

sia tailerrak izaten segitzen dute: guraso elkarte bakoitzak tailer bana antolatzen du haurrendako. Haren apainketaz eskola bakoitzeko zuzendaritza arduratzen da. Hortik aurrera, jaia antolatzea egokitu zaion eskolak egitarau oso bat prestatzen du”.

#### Lakuntzan

Aurtengo festaren dinamizatzailea eta Luis Fuentes eskolako ama da Anabel Arraiza. Berak esan digunez, “ikastetxearen eta herria-

ren arteko harremana indartu eta gerturatzeko helburuarekin kalera aterako gara eskolak dituen bertute eta aberastasun guztiak erakutsiz”. *Hazi eta hezi, euskaraz bizi* leloa du festak. Guraso talde batek ikastetxeari joan den urtean eskaintako kantatik atera dute. Gainera, irudia ere badu. Arraizak azaldu digunez, ikasleei ospakizunerako marrazki bana egiteko eskatu zieten eta Lakuntzako hiru artistek osatutako epaimahaiak erabakizuen zein izanen zen

aukeratutakoa: LH 1eko 6 urteko ikasle baten lana. “Hasieratik adostasuna izan zen. Marrazkiak hainbat gauza lotu zitzaizkela: integratzailea, aniztasuna, bizia... hori guztia batzen du”.

Festa behar bezala antolatzeko Luis Fuentesko hezkuntza komunitateak (guraso, irakasle eta udaleko ordezkariak) hainbat lan talde sortu ditu. Bi hilabete inguru daramatela lanean. Arraizak udalak elkarlanean aurkeztutako jarraera eskertu du. “Dena herrian,

herriarendako izanen da, auzolan, elkarlan hori sustatu nahian”. Azken deia egin die Arraizak lakuntzarrei: “lanean ari direnendako, animo! Gainontzekoendako, gerturatu daitezela, ezagutu gaitzate-la eta ezagutu dezatela eredu”.

#### Txandakatze sistema

Ibarreko eskolen festa bigarren aldiz hartuko du Lakuntzak. Arraizak argitu digunez, antolakuntzan errepikatzen duen aurreneko herria da. Sakanan tamaina handiko (Atakondoa, Luis Fuentes, San Donato eta Zelandi) eta txikiko eskolak (San Migel, Arbizu, Arrano Beltza, Urdiain eta Domingo Bados) daude. Festaren ospakizuna nori dagokion zehazteko bost txandako zikloa dute. Eskola handiek bost txandetako lau osatzen dituzte eta falta dena eskola txikien artean erabakitzen dute zeinek antolatuko duen, eta elkarlanean prestatzen dute. Festa ospatzeko erreferentziak hila-betea apirila da.

#### >> Lakuntza

## 52 palet bildu dira errefuxiatuendako

**Errefuxiatuendako neguko material bilketarekin “gaindituta baina pozik” daude Lakuntzako boluntarioak. Sakana guztitik, Iruñeatik eta Gipuzkoatik ere jaso dute materiala. Apezaren etxeko lokala beteta, igerilekuetan jarraitu behar izan zuten bilketa**

Aurreko astean Grezian eta Volgogradon (Stalingradon) dauden errefuxiatuendako neguko arropa, mantak eta beharrezko materiala biltzeari ekin zion Lakuntzako boluntario talde txiki batek. Eki-menak sekulako erantzuna izan zuen eta antolatzaileek gaindituta ikusi zuten euren burua. Boluntario taldeko Mari Jose Imirizaldurekin eta Lourdes Egurzarekin hitz egin genuen ostiralean, materiala biltzen eta sailkatzen lanez lepo zeudenean.

Idea lau zapabost lakuntzarrei bururatu zitzaion. “Errefuxiatuen egoera gogorraren aurrean zerbait egitea pentsatu genuen” azaldu du Imirizaldu. “Gogoratzen dut gizon baten argazkia ikusi nuela, negu gorrian, txankletekin. Hau ezinezkoa da... pentsatu nuen” gaineratu du Egurzak. Horrela, zerbait egin nahian, kontaktuak bilatzen hasi ziren. “Jakin genuen Gipuzkoan toki batean bilketa egiten ari zirela, hara deitu eta gaindituak zeuden, guri gertatu zaigun bezala. Ezagunak genituen Gobernu Kanpoko Erakundeetara (GKE) deitu genuen eta, azkenean, Grezian lan egiten duen eta GKE batzuetan sartuta dagoen emakume batekin egin dugu harremana. Esan zigun guk mate-

rial bilketa egiteko eta GKE bat, Fundación Seurren bidez, egingo zela garraioaren kargu. Material prestaketa antolatzen hasi ginen” gaineratu du Imirizaldu.

Lakuntzako apaizaren etxean hasi ziren. “Zerbait xumea egiteko asmoa genuen, Lakuntzan ahal zena biltzea... baina erantzuna izugarria izan da eta hasieratik gaindituta ikusi genuen gure burua. Hau ikaragarria izan da” azpimarratu du Imirizaldu.

#### Laguntzagatik gaindituta

San Saastinetako danborradan ekimenaren berri eman zuten, Guaixen eta Noticiasen ere agertu zen berria eta sare sozialei esker barreiatu egin zen. Ondorioz, Lakuntzatik aparte, Sakanatik, Iruñeatik eta Gipuzkoatik ere joan da jendea errefuxiatuendako materiala eramatera. Sekulako dimentsioa hartu zuen ekimenak. “Nabarmenezkoa da jendearen esker ona eta ekarri dituzten arropen eta materialen kalitate ona. Fabrika batzuk ere euren materiala, dituzten txalekoak, oinetakoak eta beste ere bidali dituzte... denetatik bildu dugu” adierazi du Egurzak.

Hasierako lau zapabost boluntario horiek egunero lanean ibili diren 20 boluntariotik gora bilakatu ziren berehala. “Bere kabuz, berehala erantzun du jendeak. Oso eskertuta gaude. Uste dugu 40 pertsonatik gora parte hartu dutela ekimenean” gaineratu dute.

#### Apezaren etxea beteta

Apezaren etxeko lokala txiki gel-ditu zitzaion, kaxez beteta, eta ostiralean Lakuntzako igerilekuetan jarraitu zuten material bilketa. Han bildu ginen beraiekin. “Ezin gara gelditu ere egin. Jendeak materiala ekarri eta ekarri, eta gu materiala sailkatzen –gizonak, emakumeak, haurrak, zapat, mantak... dena sailkatu behar da– eta kaxetan sartzen. Katean lan egitea bezala da hau” zioten Imirizaldu eta Egurzak.

“Herriko eta gertuko enpresen borondatea eta laguntza aipatu nahiko genuke. Behar dugun material guztia eskaini digute: kaxak, prezintoa, cutterrak... Zeozer behar dugula? Tori behar duzuen guztia. Kaxak hasieran herriko dendetatik hartu genituen, gero Lacunza Calor de Vidako kaxa handi horiek, ondoren lehengo Panasa zenetik gestioa egin eta Tafallatik, Pastridorretik, kaxak ekarri zituzten; 280 kaxa ekarri genituen. Izugarria izan da. Bestalde, portea bere gain hartzeko prestutasuna azaldu zuten ere bertako enpresek... eskertuta gaude, edozer eskatuta inoiz ez baitigitte ezetik esan” nabarmendu du Imirizaldu.

#### Laguntzeko nahia

Jendearen laguntzeko nahia, hori azpimarratu dute. Bai etxetik gaurak eramateagatik eta baita boluntario lanerako izandako prestutasunagatik ere. “Sakana guztitik



Bost egunez materiala bildu eta klasifikatzen lan handia egin dute.

jendea poltsa pila batekin etorri da, eta gelditu gabe. Hemen zeuden poltsa eta kaxa pila ikusita ai ama, baina zer dagoen hemen... zioten” azaldu du Imirizaldu.

Gaindituta, baina errefuxiatuendako material bilketak izandako erantzunarekin oso pozik daude boluntarioak. “Oso pozgarria eta eskertzekoa da halako erantzuna. Harrigarria izan da, kolore, tamaina eta ideia desberdineko jendea bildu gara lanean, helduak, gazteak... denetarik. Eki-men hau puntuala izan da, baina etorkizunean lan egiten jarraitzeko asmoa dugu, oso esperientzia positiboa izan da... Orain atsedean hartuko dugu, baina lan egiten jarraitzeko borondatea dugu” azaldu dute Imirizaldu eta Egurzak.

#### 52 palet

Kaxetan bildu zuten hasieran mate-

rial eta gero, hala eskatuta, boluntarioak atzera ere bildu eta materiala paletetan bildu dute. Bargas paletak eman zituen eta plastifikatzeko beharrezko materiala Cocinas Lacunzak eta ProsimeD enpresak. Azkenean, errefuxiatuak bilduta dauden Grezia eta Stalingradoko eremuetara bidaltzeko 52 material palet bildu dira Lakuntzan. Material hori Bargas enpresan dago, kargatzeko zain. “Fundacion Seurreko kamioiak aste honetan barna etorriko dira bildutako materiala Iruñera eramatera. Iruñetik GKE-ak izango dira materiala errefuxiatuengana eramango dutenak. Azaldu digutenetik, Stalingradon dauden errefuxiatuengana bidertuko da gehiena, egoera oso gogor eta tamalgarrian baitaude” azaldu digu Lakuntzako alkate Patxi Xabier Razkinek, boluntario lanean ere arituenak. +www.guaixe.eus

## » Lakuntza

# Liburutegia, ganboikora



Udaletxeko ganboikoa, igogailu eta guzti.

## Eta hark udaletxearen ezkaratzean utzitako espazioa gazte-txoko bihurtzeko erabiliko da

Lakuntzako Udalak aurtengo aurrekontuak onartu zituen astelehenean. 1.019.730 euro kudeatuko ditu aurten udalak. Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza alkateak azaldu digunez, “legegintzaldi honetan kulturari bultzada ematen ari gara”. Eta aurrekontuak prestatzerakoan Kultura Batzordeak egindako herriaren kultura diagnosis izan dute kontuan. “Hainbat gabezia” agerian gelditu ziren eta haiek zuzentzeko neurriak hartzen hasiko da udala.

Razkinek argitu digunez, “egungo liburutegiak espazio txikia eta banatu gabea du”. Ganboikora igokodute eta 250 metro karratuko azalera liburutegiaz aparte, haurren-

## Beste inbertsioak

Zer	Aurrekontua
Argiteria publikoan led-ak jarri	10.000
Kultur etxean inbertsioa	10.000
Txorrokota errekoak lubeta berreraikitzea	7.000
Igerilekuan hobekuntzak	6.000
Baso lanak	5.000
Kultur etxeko tabernan inbertsioa	3.000
Eskolako aterpearen eraikuntza	3.000
Ondare ez-materialaren bideoaren kopiak	2.500

dako txokoa eta informatika gunea prestatuko dituzte. Guztia kristalez banatuta, argirik ez galtzeko. Egokitzapena egiteko 25.000 euro bideratuko ditu udalak.

Gaur egun ganboikoan egiten diren yoga, dantza eta karate ikastaroendako beste kokapenen bat bilatuko du udalak. Bestealde, udaletxeko ezkaratzean liburutegiak utzitako espazioa gazte-txokoan bihurtuko dute. “11 eta 15 urte bitartekoendako izanen da. Orain kalean, edozein tokitan wifia “lapurtzen” ari dira adin horietakoak. Eta 15 urtetik gora Biltokian sartzen dira”. Liburutegia gazte-txoko bihurtzeko 5.000

euro erabiliko dira.

## Lau pabiloi

Hiltegi zaharrean, plazako biltegi eta igerilekuan banatuak ditu udalak bere tresneria guztia. Horiek guztiak biltegi bakar batean bildu nahi lituzkete. Horregatik, aurrekontuan 64.200 euroko diru-poltsa aurreikusitako du. Industrialdean lursaila erosi eta han lau pabiloi eraiki nahi lituzke udalak. 425 metro karratuko izanen lituzte bakoitza. Bat berarendako gordeko luke udalak eta gainontzeko hiruak saldu. Dagoeneko bakarren batek interesa azaldu du pabiloi horietakoren batean.

## » Etxarri Aranatz

# Udalak aurten ere langabetuak kontratatuko ditu

**Zerbitzu anitzetako-peoi eta garbiketarako lanak egingen dituzte. Otsailaren 15eko 14:00ak arte eman daitezke izena Altsasuko enplegu bulegoan**

Etxarri Aranatzko Udalak herriko langabetuak kontratatuzko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntza deialdira aurkeztu da. Jasotakoaren arabera urte erdirako bi edo lau etxarriar kontratatuko dituela jakinarazi du udalak. Ziurraski lau izanen dira, batzuk lanean berehala hasteko eta bes-

teak uda aldera. Haien zereginak honakoak izanen dira: garbiketarako, zakarrontziak hustu zaborren, lekua aztertzea; desbrozeak, ibilaldiak garbitzea eta mantentzea, obra txikiak, udaleko beste langile batzuei laguntzea eta abar.

Baina deialdi horren bidez kontratatuko izateko hainbat ezaugarri bete behar dira. Alde batetik, errenta bermatua jasotzea, gutxienez ere %33ko desgaitasuna izatea edo genero indarkeriaren bik-



Etxarri Aranatzko udaletxearen eta plazaren ikuspegia. ARTXIBOA

tima izatea. Bestetik, kontratatzerakoak emakumezkoak izatea ere kontuan izanen da. Edota, azkenik,

45 urtetik gorakoak edo 30 urte baino gehiago eta langabezian luze daramatenak. Azken horien arte-

an, gehienez, udalak bi kontratu egingen ditu. Lan hizkuntza euskara denez, euskara ezagutzea eskatuko zaie guztiei. Joan den urtean programa horren bidez kontratatutako pertsonak ezin dira deialdira aurkeztu.

## Probak

Langileak aukeratzeko udalak probak egingen ditu. Euskara titulua dutenek otsailaren 15eko 12:00ak baino lehen aurkeztu beharko dute. Gainontzekoek, otsailaren 20an, 9:30ean, egingen dute proba Etxarri Aranatzko udal liburutegian. Toki berean eta ordu berean, hurrengo egunean teoria-proba izanen da. Azkenik, lanpostuaren funtzioei buruzkoak, euskaraz, udalaren biltegiaren egingen dira. Emaitzak etxe-handiaren bulego iragarki taulan jarriko dira.

## » Altsasu

# Lamela epaileak ferietako liskarra terrorismo gisa epaitzeko eskatu du

**Sumarioa despeditu du eta Zigor-erloko Salari igorri dio epailearen egonen den erabaki dezan**

Espainiako Auzitegi Nazionalako 3. zenbakidun Instrukzio Epaitegiko epaile Carmen Lamelak ferietako liskarragatik zabaldu-tako sumarioa itxi du eta epaitegiaren esku utzi du. Han auzipe-tuta dauden bederatzi gazteak (beste biak adin txikikoen epaitegian dute kausa) terrorismo delituagatik epaitzeko eskatu du, atentatu, gorroto eta lesioengatik. Zigor Kodearen 573. artikularekin bat datorrela dio Lamelak. Albiste agentziek zabaldu dutenez, epaileak dio prozesatzeko erabakia ezin zela atzera-

tzea “delitua egin zutela baieztatuzeko fundamentuzko nahikoa motibo baitaude”.

Agentziek zabaldu dutenez, epaileak “erasoa” Ospa mugimenduak Guardia Civileko kideak “zirikatze inposatzen dituen errutinetan” kokatu du. Atxilotuetako batzuk mugimenduko kide direla dio. “Guztiak ezagutzen zuten aurretik tenientea eta sargentoa guardia zibilak zirela, hori izanik irainduak eta kolpatuak izateko arrazoi bakarra”.

Lamelaren iritziz, “gaur egun Bilduren, Sorturen eta Ernairen babesa dute”. Ospa mugimenduen sorrera 2011ko martxoan sortu zela dio, Altsasuko Errepre-

sioaren kontrako Batzordea sortu zenean. “Atxilotuetako lau bere sustatzaile nagusietakoak dira”. Epaileak gaineratzen duenez, mugimenduak “Guardia Zibileko kideengan eragin nahi du, talde txiki baten helburu senti daitezen eta eguneroko jarduerak egiterakoan zailtasunak izan ditzaten, esaterako: erosketak egin, bikoteekin aisialdiaz gozatu seme-alabak jardueretara ize-na eman”. Mugimenduak “beste herritarrei agenteekin harremanik ez izateko eskatzen die. Hala-koak betetzen ez dituenak Guardia Zibilaren “laguntzat” jotzen dute.

• 8. orrian eta [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## » Ziordia

## Araztegia egiteko tramite baten data

Hondakin uren araztegia egiteko ondasunak eta eskubideak okupatu behar dira. Horregatik, haien titularrei eta Ziordiko alkateari otsai-

laren 22rako udaletxera joateko hots egin diete. Egundorretan ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu aurreko aktak egin nahi dituzte Nafarroako Gobernuak, eta bidezkoa bada, baita behin betiko okupazioak ere.

**Borda** JATETXEA

**AUKERATZEN DU:**

Sukalde laguntzailea (0101)

Sukalde auxiliarra (0201)

Interesatuak *curriculum vitae*a bidali, erreferentzia aipatuz [personalrrhh@bordajatetxea.com](mailto:personalrrhh@bordajatetxea.com) helbidera edo Borda Jatetxera bertara eskuz eraman.

Argazki eguneratua atxikita bidali behar da.

## &gt;&gt; Altsasu

## Auzipetuen gurasoen manifestua atxikimenduak jasotzen hasi da

**Sinatzaileek eskatzen dute: proportzionaltasunaren, justiziaren eta ekitatearen printzipioak gailen daitezen eta galdegiten dugu terrorismo-delituaren kalifikazioa ezabatzeko, eskumena Iruñeko 3. Instrukzio-epaitegiari bueltatzeko eta, ondorioz, zazpi gazteak aske uzteko.**

**Aldi berean, agintari eskudunei eskatu diete (Fiskaltza Nagusia, Auzitegi Nazionala eta Nafarroako Probintzia-Auzitegia) norabide berean birplanteatu dezatela beren jarduna, eta herri-administrazio, hedabide, gizarte eta politika-eragile eta jendarteari ere eskakizun horiek bete ditzatela eskatu dute**

Gazte auzipetuen gurasoek manifestua aurkeztu zuten Altsasun ostiralean eta Iruñean atzo. Manifestua "printzipioen deklarazio bateratua da". Deklarazio horrekin Euskal Herri guztiko kultura, kirola eta gizarte arloko hainbat pertsona ezagunek bat egin dute. Altsasuko Gurasoek manifestu horrendako atxikimenduak bilzen segituko dute, bai ezagunak baita herritarrenak ere. Horretarako, change.or plataforma erabiliko dute. Altsasuko Gurasoek, beste behin, jasotako babes eskertu dute.

Aipatu manifestuan jasotzen denez, "elkarbizitza, askatasuna eta justiziarikiko konpromisoarengatik, giza-eskubideekiko errespetuarengatik eta Zuzenbide-Estatuaren printzipioengatik, sinatzen dugunok gure kezka adierazi nahi dugu kasua garatzen ari den moduarengatik".

Aldi berean, "oinarritzat jotzen dugu jendarreak, instituzioetako ordezkariak, hedabideak eta sistema judicialak zehurtasun, inpartzialtasun eta proportzionaltasun irizpideen arabera jokatzeko. Erres-

## Autobus martxa helburua beteta



Preso segitzen duten hiru altsasuarrei elkartasuna adierazteko eta haien askatasuna aldarrikatzeko espetxera martxa egin zen larunbatean. Herri-asanbladak bi autobus bete zituen eta beste hainbat herritar autoak hartuta egin zuten Madrilerako bidea. Espetxearen kanpoko aldean madrildar ugari batu zitzaizkien. Herri-asanbladatik gogorazi zuten Adurrek, Jokinek eta Oihanek aurki hiru hilabete eginen dituztela preso. Haien askatasuna aldarrikatzearekin batera Euskal Herriaren desmilitarizazioa eskatu zuten. Madrilgo Altsasu babes-teko plataformakoek euren elkartasun internazionalista adierazi eta haiek ere antzeko polizia-muntaiak bizi izan dituztela gaztigatu zuten. Azkenik, gurasoek euren esker ona adierazi zuten.

petua zor diogu errugabetasun-presuntzioari eta, horregatik, gure kezka agertu nahi dugu gazteen identitatea argitaratu izanagatik, horietako bi adin txikikoak izanik, eta atxiloketak gauzatu diren moduarengatik ere: agindu judicialik gabe eta ordu eta leku publikoetan, nahiz eta aurretik beren kabuz deklaratzera aurkeztu ziren. Sinatzaileek diotenez, 11 auzipetuei epaile naturala ukatu zaie eta berme prozesalaz zalantzatan geratu dira.

Gainera, kezka azaldu dute "gertaerak terrorismo delitutzat judizialki izendatzeagatik. Proportzionaltasun-faltak eta interpretazio estentsiboak urratzen

dute askatasuna, berme prozesala eta herritar guztiok babestu behar gaituen segurtasun juridikoa". Eta nabarmendu dute Foruzaingoak eta Guardia Zibilak idatzitako lehenengo txostenek ez ezatatu eta errefusatu egin zutela gertaerak terrorismo-delitutzat kalifikatzea.

Manifestura atxiki direnek gogorazi dute Altsasukoa "terrorismo-ekintzat hartuz gero, 10-15 urteko kartzela zigorra legokieke gazte hauei, eraiketa delituari dagokion zigorraldia beraz, eta hori ez dator bat mediku agirietan adierazten diren lesioen larritasun mailarekin". Horri lotuta nabarmendu dute "gehiegizko zigor horiek

betetzeak gazteei ekarriko lieken konpondu ezinezko kaltea".

Behin-behineko kartzelaldia salbuespenetzko kautelazko neurria dela gogorazi ondoren, "kez-kagarritzat" jo dute neurria altsasuarrei ezartzea "behin baino gehiagotan, eta beren borondatez, epaitegiaren aurkeztu direlako, deklaratzeko prest. Ulertzen dugu familiek sentitzen duten babesik eta defentsarik eza". Bestetik adierazi dutenez, "hedabideek neurritz gaindi jorratu dute gaia eta Altsasuko herriaren erre-alitatearekin bat ez datorren irudia eman dute. Oso kaltegarria izan da, eta ez dio elkarbizitzari mesederik egiten".

## &gt;&gt; 216 abokaturen ustez altsasuarren auzipetzea "zentsugabekeria" da

**Auzia Iruñean edo Madrilen epaitu behar den erabakitze dagoenean egin dute publiko elkartasun kanpaina**

Euskal Herriko 216 abokatu, juristek eta unibertsitate irakasleek zortzi puntuko manifestua publiko egin dute. Fiskaltzak eta Espainiako Auzitegi Nazionalak izandako jarrera kritikatu eta gazte altsasuarren auzipetze prozesua "neurritz kanpoko" izan dela gaztigatu dute. Aldi berean, ferietako liskarra terrorismo gisa epaitzea "zentsugabekeria" dela. Era berean neurrigabetzat jo dute hiru auzipetu espetxean izatea. +www.guaixe.eus



## IRUÑEAN MADRILEN INSTRUITU BEHAR DEN BERRAZTERTZEN

Ilbeltzaren 20tik Iruñeko 3. instrukzio epaile Maria Paz Benito Altsasuko gazteen defentsak aurkeztutako apelazio eta erreforma helegitei erantzuna emateko lanean ari da. Izan ere, epaile horrek hasi zuen ferietako liskararen auziaren instrukzioa, baina azaroaren 8an inhi-bitu eta Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku utzi zuen, "terrorismo delitua" zelakoan. Defentsaren helegitei azaroaren 22an erantzun zien halakorik aurkezterik ez zutela. Baina Nafarroako Lurralde Auzitegiko lehen aretoak defentsako abokatuen kexa helegitea onartu du. Horrek auzia Iruñera ekartzeko aukera bat zabaldu du. Auzipetuen gurasoen eta Nafarroako Parlamentuko talde gehienek eskaerak bat hain zuzen ere. Amaia Izko abokatuak esan duenez, "epaileak terrorismo delitua den esateko zantzurik ikusten duen esan beharko du". Auzitegien eskumenen inguruan ebatzi beharko du eta juridikoki arrazoitu zein epaitegiari dagokion auzia epaitzea, Iruñekoari edo Madrilgoari. Liskarra "terrorismo delitu" dela ebazten badu, horren kontra gogoko epaitegi batean helegitea aurkezteko aukera luke defentsak. Nafarroako Justizia Auzitegi Goreneko prentsa bulegotik jakinarazi digutenez, epaileak ebazpena noiz emanen duen esatea zaila da, baina hilabete baino lehen izan daitekeela aipatu dute.

## SAKANA

## LAB, kongresuaren aurretik, aurkezpen eta eztabaida batzarra

**Heldu den ostegunean, 16:00etan, Irurtzongo kultur etxean**

LABek bere 9. Biltzar Nazionala Gasteizen egingen du maiatzaren 25ean eta 26an. Sakanako LABeko ordezkari Gaizka Uhartek azaldu digunez, "gure sindikatu eredu birpentsatzeko erronkarekin gogoeta prozesua egin dugu. Biltzar Nagusian, orain arteko ibil-

bidea oinarri hartuta, aldaketa gauzatzeko erabakiak hartuko ditugu. Esku artean proiektu argi bat dugula, gure eskaintza berri-tzen jarraituko dugu".

Kongresuari begira, Euskal Herriko eskualdeetan dinamika bat jarri du martxan sindikatuak. Otsaila hasierara arte eskualde guztietan delegatu eta

afiliatuekin batzarrak egingo dira ponentzietan (politiko-sindikala eta antolakuntzakoa) proposatzen diren erabaki nagusiak azaldu eta haien inguruan eztabaidatzeko.

Horren ondoren, maiatza bitartean, oinarri sozial, herritar eta eragileekin hainbat solasaldi egingen dituzte LABekoek.

"Ponentzietan jasotzen diren gai nagusien inguruan LABen ikuspegia jendarteratu eta eztabaida soziala bultzatzea izanen da solasaldi horien helburua". Besteak beste, burujabetza prozesua eta aldaketa soziala, sindikal gintzaren ekarpena borroka sozialean eta ekintza sindikal integrala izanen dituzte hizpide.

## &gt;&gt; Altsasu

## La Encinak hasi ditu urteko jarduerak

Urtero, ilbeltzeko hotzekin batera, La Encina Extremadurako kultur zentroak garai bateko txerri-hilketak nola egiten zen biziberritu zuen. Larunbatean izan zen, baina bezperan kideak elkartu eta kafearekin hartuko zituzten Extremadurako gozoak egin zituzten. Heste-kiak egiteko beharrezko guztiak prest utzi zituzten. Larunbat goi-

zean txerri hila ekarri bezain laster hura zatitzen hasi ziren. 120 kiloko pisu garbia zuen.

Odola aparte ekarri zuten eta harekin tripotak egiten hasi ziren Txorizo, saltxitxo eta bestelakoak ere. Lana behar bezala egiteko ogi-apurrak gosaldutuz 30 batek. Lana egin ondoren, bazkaltzera 50 bat kide elkartu ziren. Nafarroandauden etxe erregionaletako federazio-ko kide bat izan zen larunbatean La Encinan. +www.guaixe.eus



La Encinako kideak egindako txorizoak erakusten.



## » Burunda

**Ersisi proiektua bidea egiten**

Gizarteratzeko eskubidea indartzea, zerbitzuen integrazioaren bitartez proiektua (Ersisi ingelesez) Nafarroako Gobernuaren gizarteratze-proiektua da, Tuteran eta Altsasu, Olazti eta Ziordiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatekoudalerritan langabezian dauden 500 lagun gizarteratzen laguntzeko diseinatuta dagoena.

Proiektu esperimental honen helburuak dira langabezian dauden herritar ahulenei erantzuteko eredu berri bat diseinatzea eta frogatzea, oinarritzko gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen baterako esku-hartzean oinarritzen dena; Errenta Bermatuaren erreformak identifikatzea eta testatzea; eta toki-mailan enplegu-politika aktiboa planifikatzeko sistema berria garatzea eta ezartzea, eragile publiko eta pribatuaren arteko aliantzen bitartez.

Proiektuak 1.852.284,11 euroko aurrekontua du eta europar funtsekin finantzatu da %75a. Izan ere, agorriean jakin zen Europako Batzordeak, EaSI (Employment and Social Innovation) programaren laguntza-deialdian Nafarroako Gobernuaren proiektu pilotua hautatu zuela. Finantziak osatzeko, Miguel Laparrak, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehen-dakariordeak, lankidetzaz hitzarmen sinatu zuen La Caixa eta Caja Navarra fundazioko ordezkariekin ilbeltzaren 24an; hitzarmen horren bitartez, erakunde biek hartzen du ERSISI proiektua finantzatzeko 120.000 euroko ekarpena egiten dute. Proiektua 2016ko irailetik 2019ko irailera. Teknikariak gaur egun barne lana egiten ari dira.

## » SAKANA

**Gizarte Zerbitzuen finantziak %69,43 hazi zen 2016an**

**Ibarreko hiru mankomunitateak finantzatzeko, Babestutako Gizarte Enplegu (BGE) proiektuetarako eta gizarte-larrialdietarako 1.030.407,35 euro izan ziren. 36 pertsona kontratatu zituzten udalak**

Gizarte Eskubideen Departamentuak Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak finantzatzeko 21,7 milioi euro bideratu zituen joan den urtean, 2015ean baino %41,83 gehiago. Iturri beraren arabera Irurtzun aldeko, Etxarri Aranatz aldeko eta Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateek jasotakoa 2015arekin alderatuta Nafarroaren batz bestekoaren gainera dago, %69,43 izan baitzen, 608.166,72 eurotik 1.030.407,35 eurora pasaz.

Dirutza horretatik 599.233,80 euro Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateek eskaintzen dituzten oinarritzko lau programak garatzeko izan ziren. 2015ean baino %16,26 gehiago. Honakoak dira lau programak: harrera eta gizarte-orientazioa, autonomia pertsonala eta dependentsiari arreta, haurtzaroa eta gizarteratzea. Babestutako Gizarte Enplegua programak garatzeko %298,30 gehiago jaso

**30 urtez azpikoen kontratazioarako**

Udala	Kontratuak	Diru-laguntza
Altsasu	2	6.400
Arakil	1	4.800
Lakuntza	2	3.315
	1	4.800
	1	2.400
Uharte Arakil	2	3.350,1
<b>Guztira</b>	<b>9</b>	<b>25.065,1</b>

zuten mankomunitateek, 369.458,82 euro hain zuzen ere.

2012tik 2015era arte Nafarroako Gobernuak modulua 1.200 eurotan izoztu zuen, baina joan den urtean 1.568,88 eurora igo du. Horren ondorioz 30 mankomunitateren finantziak igo da, tartean Sakanako hiruen. Aurten go finantziak irizpide berriekin egiten da. Hala ere, Gizarte Eskubideen Departamentuaren aurten go lanildoetako bata Gizarte Zerbitzuen Oinarritzko Arretaren berrikuspena eta inklusio planaren onarpena dira. "Horiek gizarte zerbitzuen ekintza estrategikoa kokatzeko balioko dute, baita finantziak, prestazio eta langile-erlota benetako beharrak zein diren zehaztea ere.



Arbizuko kaleak jendez gainezka, txistor-egunean.

**Sakanako mankomunitateen finantziak 2015-2016**

Mankomunitatea	O. programak 2015	BGE 2015	BGE 2016	Larrialdi Laguntzak	O. programak 2016
Burunda mendebaldea	180.176,20	39.039,03	145.408,15	31.000	200.150,32
Irurtzun	195.558,27	30.752,39	128.908,13	18.364,73	243.936,93
Etxarri Aranatz	139.673,90	22.966,93	95.142,54	12.350,00	155.146,55
<b>Guztira</b>	<b>515.408,37</b>	<b>92.758,35</b>	<b>369.458,82</b>	<b>61.714,73</b>	<b>599.233,80</b>

**Oinarritzko programak, aldea 2015-2016**

Mankomunitatea	2015	2016	Aldea %
Burunda mendebaldea	180.176,20	200.150,32	11,09
Irurtzun	195.558,27	243.936,93	24,74
Etxarri Aranatz	139.673,90	155.146,55	11,08
<b>Guztira</b>	<b>515.408,37</b>	<b>599.233,80</b>	<b>16,26</b>

**Babestutako Gizarte Enplegua, aldea 2015-2016**

Mankomunitatea	2015	2016	Aldea %
Burunda mendebaldea	39.039,03	145.408,15	272,47
Irurtzun	30.752,39	128.908,13	319,18
Etxarri Aranatz	22.966,93	95.142,54	314,26
<b>Guztira</b>	<b>92.758,35</b>	<b>369.458,82</b>	<b>298,30</b>

**Obren eta interes orokorreko edo sozialeko deialdia**

Udala	Kontratuak	Diru-laguntza
Altsasu	8	47.952
Arakil	3	17.982
Etxarri Aranatz	3	11.988
	1	5.994
Irurtzun	4	20.979
	1	4.370,62
Olatzagutia	3	17.982
	1	2.451,55
Uharte Arakil	1	3.996
	1	2.587,41
Ziordia	2	5.994
<b>Guztira</b>	<b>27</b>	<b>142.276,58</b>

## » Altsasu

**Haur eskolako lanak despeditu dira**

**Auzobide kalean dagoen pareta atzeratu eta plaza bat sortzeko asmoa du udalak**

Altsasuko alkate Javier Ollo Martinezek jakinarazi digunez, Txirribulo udal haur eskolako lanak despeditu berri ditu Arbeloa eraikuntza enpresak. Zelandi eskolan egokitutako moduluetan zegoen haur eskola, behin-behinean, 2015eko irailaren 3an sute batek txikitu zituen arte. Orduetik Intxostiapunta gazte gunean egokitutako espazioan dago haur eskola. Ollok gogora ekarri du ezbeharraren ondoren udalak egoki jo zuela geldituta zeuden haur eskolako lanei berrituz. "Udalak diskrezioz eta eraginkorki lan egin du" prozesu guztian eta "lan horrek fruituak eman ditu, obra despeditu baita". Haur eskolako langileek egindako administrazio eta politika lanak "udal osoaren

esker ona merezi du", gaineratu du alkateak.

Eraikuntza enpresarekin izandako elkarlana nabarmendu du aldi berean. Ollok argitu duenez, Navarro Villoslada eskola zen hartan haur eskola egokitzeko lanez aparte, eraikinaren lehen solairuan zenbait lan egin dituzte, "aurreikusitako lanen barruan ez bazegoen ere, egindako egokitzapena hobekuntza elementu garbia da eta egoki egotea hobe da". Lanek 424.000 euroko aurrekontua izan dute.

**Plaza berri bat**

Lanak despedituta, Ollok azaldu du beste egiteko batzuk gelditzen direla. Alde batetik, gaur egun dagoen Auzobide kalean dagoen hesia atzera emanen dute udaleko lanen lantaldeko langileek. Otsailean eta martxoan egingen



Haur eskolan lanak despeditu aurreko egun batean.

dute lan hori. Gelditzen den espazioan plaza bat sortzeko asmoa du udalak. Ollok azaldu digunez, udaleko aurrekontuetan plaza hori egiteko diru-sail bat sortzea aurreikusitako dute.

Aurrekontu proiektua udal tal-

deak negoziatzen ari direla eta auri udal bilkurak aztertuko duela jakinarazi digu alkateak. Aurrekontuen zirriborro horretan haur eskola janzteko 72.000 euroko diru saila aurreikusitako daude. Ollok argitu duenez, gastu horri aurre

egiteko Toki Garapen Estrategia Parte-hartzailerako diru-laguntza eskaera egin du udalak. Nafarroako Gobernuak eta Europako Batasunaren funts horrek %70era arteko laguntza eman dezakeela gatzigatu du alkateak.

# 40 tanatorios IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



**Oscar Bujanda  
Ondarra**  
**Antxon Galparsoro  
Jauregi**

**Olaztiko 57-58ko kintoak**



**Román Camisón  
Juan José Tajuelo  
Borja Rodríguez  
Rubén Estévez**

Beti gogoan.

**Altsasuko 92ko kintoak**

**Eugenio Goikoetxea  
Irigoién**



Maitasuna inoiz  
itzaltzen ez delako,  
gogoan zaitugu.

**Zure familia**

Urdiainen, ilbeltzaren 30ean



**Teresa Larumbe  
Larumbe**



Gure bizitzaren  
indarra izan zara.  
Zer egin behar dugu zu gabe?  
Maite zaitugu.

**Zure seme-alabak eta bilobak**  
Lakuntzan, ilbeltzaren 28an



**Mikel Arbilla  
Gastesi**



**Lanekoko zure lankideak**

Uharte Arakilen, 2017ko otsailaren 1ean

**Mikel Arbilla Gastesi**

Eskerrik asko Mikel  
zure irrifarra, zure  
umorearengatik.  
Beti gure gogoan

**Pilotako lagunak**



guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

3 LANA/NEGOZIOAK

5 IBILGAILUAK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

4 DENETARIK

6 HARREMANAK

8 FAMILIA/ETXEA

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**

Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, 8€ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: [iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

### LANA | NEGOZIOAK

#### LAN ESKAINTZAK

Esperientziadun harakina behar da Gipuzkoan. Lan egiteko gogoarekin. Eskatzen da: arretatsua, garbia eta arduratsua izatea. Lanaldi osoa. Bidali CV [harategiaa@gmail.com](mailto:harategiaa@gmail.com)

**Uharte Arakilen Garbiñe Azurmendiren botikarako farmazialari bat behar da jornada osorako.** Kontratu mugagabea. Interesatuak deitu telefono honetara 675 551 510.

### IKASTAROKAK

**Album ilustratu bat sortzeko helduendako lantegia.** Otsailak 11, larunbata, 10:30 – 13:30 Arbizuko liburutegian. Izen-ematea: Arbizuko liburutegian otsailaren 3ra arte, 948 017 777 edo [liburutegi@arbizu.eus](mailto:liburutegi@arbizu.eus)

### OPARITUTAKOAK

**Intxaurrendoa, gaztainondoa eta haritzak oparitzen ditut,** konpostetik jaiotakoak. Tel 656 711 356.

### SALDUTAKOAK

**Border Collie txakurkumeak saltzen dira,** aita eta ama ardiekin lanean dabilta. Tel 646 843 579.

### OHARRAK

**Nafarroako haur kantari jaialdiak 2017.** Izen-ematea zabalik dago 6-16 urte bitarteko. Nafarroako haur guztiak har dezakete parte; bakarlari, bikote zein taldetan. Izena emateko [amadominguez@tafallaikastola.org](mailto:amadominguez@tafallaikastola.org). Jaialdiak martxoak 18, Zangozan; 19an, Lakuntzan; 25ean Lesakan eta apirilaren 1ean, Burlatan.

**Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabil-tzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

**Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu,** urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago ami-

[gosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:gosjosefinaarreguilagunak@gmail.com) edo [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com)

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

**3MBk kontu korronea zabaldu du** Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza), [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943 32 22 94

#### Mintzake proiektua.

Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen

du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**GoiEner Iruñean.** Landare utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

**Nicoleren aldeko diru-bilketa.** Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korrante honetan sartu dezake dirua: E533 2100 5365 2301 0002 9770.

**Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia.** Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak [nafarroakoeuskalkantu@gmail.com](mailto:nafarroakoeuskalkantu@gmail.com) edo [amadominguez@tafallaikastola.org](mailto:amadominguez@tafallaikastola.org) e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

### OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

#### OPATUTAKOAK

**Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu:**

diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Bataurrekoak eta bataurreko-zorroak: 42. Euritakoak

#### JAIOTZAK

- **Nahikari Guirado Navarro,** ilbeltzaren 20an Altsasun.
- **Enar Navarro Arrue,** ilbeltzaren 25ean Etxarri Aranatzen.
- **Jihan El Bouname,** ilbeltzaren 27an Arbizun.
- **Luar Osacar Beraza,** ilbeltzaren 27an Izurdiagan.

#### HERIOTZAK

- **Teresa Larumbe Larumbe,** ilbeltzaren 28an

eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

#### Lakuntzan.

- **Pablo Bergera Fernandez,** ilbeltzaren 29an Altsasun.
- **Eugenio Goikoetxea Irigoien,** ilbeltzaren 30ean Urdiainen.
- **Maria Rosa Soto Herrador,** ilbeltzaren 31an Iturmendin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

## SAKANA

# Santa Agedari kantari

Igandean da Santa Ageda eguna. Ohiko kantueskeak bezperan, bihar izanen dira. **Irurtzungo** euskaltzaleen topagunea, Aizpea, arduratzen da Santa Ageda koplak kantatzera ateratzeko deialdia egiteaz. Bihar, 18:30ean, plazatik abiatuko dira.

**Irañetan** Santa Agedarekin batera inauteriak ospatzen dituztenez, gaur aterako dira koplak kantatzera. 18:30ean elkartuko dira Txapel Azpi elkartean. Baserritarrez jantzita joateko deia egin dute.

**Lakuntzan**, bihar, 17:00etan jarri

dute hitzordua, eta kantuaren erritmoa eramateko makilak eramateko gaztigatu dute. Herrian barna kantu-eskean ibiliko dira eta jasotakoarekin, akaberan, kultur etxean merendua egingen dute. Arbizun larunbatean aterako dira herria kantuz alaitzera. 18:00etan izanen da, plazatik abiatuta. Eta makila ez ahazteko deia egin dute.

**Etxarri Aranazko** musika eskolako ikasleak eta abesbatzako kideek ahotsak elkartuko dituzte Santa Ageda bezperan. 18:00etan plazan elkartu eta herrian barna



Irañetako herri abesbatza, helduak zein gaztetxoak Santa Agedako koplak abesten

kantari ariko dira.

**Iturmendin** 19:30ean elkartuko dira bihar. Plazatik abiatuko dute kantu-eskea. Baserritarrez

jantzita joateko gonbidapena egin dute gazte asanbladakoek.

**Altsasun** musika eskolatik abiatu eta herrian barna kantari ariko

dira aipatu eskolako abesbatzako kideak. Fanfarrearen laguntza izanen dute. 12:30ean abiatuko dira Santa Ageda koplak kantatzera.

## Irañeta



Irintarrek mozorroak jantzen lehenengoak.

# Ibarreko aurreneko inauteria hemen da

Irintarrek Santa Agedarekin batera ospatzen dituzte ihoteak eta beraiek dira aurten ibarreko festa ziklo hori mustuko dutenak. Bihar izanen da ospakizuna, baina hura behar bezala ospatzeko gaur bertan elkartuko dira. 18:00etan Txapel Azpi elkartera hurbiltzen diren guztien artean Atxun Zarkoa prestatuko dute. Bera da Irañetako inauteriko protagonista.

Ihote ospakizunei ekiteko, bihar, hamaiketakoak janen dute. Ohienez, mahaian ez dira ardi tripotxak faltako. Haienak egin ondoren, ihote segizokoak goitik behera txuriz jantziko dira, bizkarraldean koloretako zintak jarriz, baita gerriko gorria ere.

Burua koloretako zintadun txano batekin estaliko dute. Hala aterako da kalera ihote segizioa

eta, musika lagun, ezkongai dauden emakumeen etxeetan geldialdiak egingen ditu. Bakoitzean ezpel adartxo egindako paxoak utziko dituzte.

Kalejira eta gero elkartean hainbat irintar ihote bazkarian elkartuko dira. Ardikia izanen da menuko osagai nagusia. Tripa-ko zuloa berdindu eta gero, 18:00ak aldera, mozorrotuta kale-atera eta giro ederrean kalejira egingen dute, Atxun Zarkoa aldean dutela. Haren azkena sua izanen da. Eta irintarrak, berriro, elkartean afaltzera bilduko dira.

## Olatzagutia

# Kintoak ospatzen ari dira

**Atzotik astelehena bitartean ariko dira Santa Ageda ospatzen aurten 18 urte betetzen dutenak. Bihar, herri guztia. Horregatik, 19:00etatik 22:00etara dantzaldia izanen da eta 00:00etatik 3:00etara Los Villanos del Ruido txaranga ariko da**

Dozena bat kinto dira aurtengo protagonistak: Ester Ondarra, Argoitz Razkin, Irene Lopez de Goikoetxea, Lorena Avraam, Maider Agirre, Mikel Razkin, Nadia Kostadinova, Olaia Agirre, Patxi Goikoetxea, Zuriñe Arguelles, Xabier Grados eta Aitor

Lorea. Kinto ospakizuneko aurreneko elkartzera herenegun gauean izan zuten, afaltzera elkartu zirenean.

Atzotik domekara, eguneroko plan bera dute. Gosaltzera elkartu, indarrak bildu eta Itxabela txaragaren laguntzaz herrian barna eskean ibiltzea. Eske-erronda bazkaltzeko etengo dute eta ondoren, afaltzeko ordua iritsi arte eskean ariko dira kintoak. Afaltzeko garaian, atzo, beti-kintoak elkartu zitzaizkien eta haiekin

batera parranda egin zuten. Gaur, berriz, afariaren ondoren gaztetxean Guda Dantza eta ETS taldeen kontzertuak izanen dituzte. Bihar eguerdian, eske-erronda une batez geldituko dute, bazkaldu aurretik, 45 urte eta 60 urte betetzen dituzten kintoekin batera argazkiak egiteko.

Domekan, gosalduek ondoren, 12:15ean mezara joanen dira. Han lau opil bedeinkatuko ditu apaiak. Bat berarendako izanen da, bestea medikuarendako. Azken



Iazko kintoak txarangarekin argazkian.

biak herriko adinduenak eta gaztetxoak jasoko dituzte. Asteburuko parrandaren ondoren, kin-

to olaztiarrek bazkariarekin eta afariarekin despedituko dute ospakizuna astelehenean.

## Altsasu

# Kinto ospakizunak bi zatitan

**Domekan eta astelehenean hasi eta ostegunetik larunbatera izanen dute segida kinto ospakizunak. Azken egunean aurtengo adin guztietako kintoak festara batuko zaizkie**

1999an jaiotako 66 neska-mutilek domekan dute kintoek egun handia. 7:30 aldera gosaltzera elkartuko dira. Neskak baserritar jantzia izanen dute, mutilak, berriz, txuriz jantziak bularra gurutzatzen dien zapiekin, kaikuekin eta txapelarekin. Eskutan, zintaz edertutako gorosti makila izanen dute.

Santa Ageda eguna domeka denez, ohi baino beranduago hasiko dira eskean, 8:00ak eta 8:30 aldera. Altsa-



Aurtengo "errege eta erreginak".

suarren borondatea zilarrezko erretilutan jasoko dituzte. Kintako buruek, txistulariak lagun, Foru plazatik

udaletxera joko dute gero herrian barna ibilbideari ekiteko. Zahartoa eramateko lanetarako nesakimutiki pare bat izanen dituzte. 30en bat opil salduko dituzte. Salmenta horretatik eta esketik ateratako diruarekin festako bazkari-afariaren gastuei aurre egiten diete.

Domekan 19:00etan plazara gerturatu dira. Banaka-banaka, kinto guztiek zortzikoa dantzatu dute. Bost egunetan txandakatuko dira. Andoni Beramendi eta Txetxo Claver izan dira aurten ere dantza irakasleak. Astearteko eta asteazkeneko atseden egunen ondoren, intxaurren itzalpean dantzatzera ostegunetik abiatuko dira, 19:00etan. +www.guaixe.eus

## Etxarri Aranatz

# Ihoteak ate joka

Garizuma murrizketa ugariaren garaia zen eta haren aurretik ospakizun handiak egiten zituen herri xeheak. Agintarien mugek eta trabek etxarriarrek ospakizunak hausterre aurreko hiru ostegunetan ospatzera eramanean zizuten. Hala, heldu den ostegunetik, hilak 9, **Gizakunde** ospatuko da. Gizon helduengunaz, txatarrak jantzita eskean aterata eta jasotakoarekin afaria egiten zuten. Kintoak eta gazteak aterako dira eskean. Otsailaren 16an, osteguna, **Andrekunde** izanen da. Txatarrak jantzi eta eske-erronda egiten zuten emakumezkoak ziren. Ihoteak galdu zirenean hainbat familietako emakumeek elkarrekin afaltzeko ohitura hartu zuten. Emakumeen

herri afariak egin izan dira gerora.

**Garikunde**, otsailaren 23an, gazteen arteko borroka eguna zen; kolpeak urte guztian zehar debekatu ta zeuden, eta egun horretan haien arteko gorabeherak konpontzeko erabiltzen zuten. Kolperik eman gabe "aurkaria lurraren kontra eusten zuten". Maskubiak haizez bete, eta jendea jotzen zuten, baita suko hautsa bota ere. Egundorak eskutan dituztela berotzen dute jendea kintoek. Haurrak txatarrak jantzeko eguna, **Zalduniyote edo mutillerdiek**, otsailaren 26an izanen da. Eta **Astearteiyoterekin**, otsailaren 28an, denak txatarrak jantzen ziren, gaita doinuak zeuden eta bazkaria egiten zen.

TXIRRINDULARITZA

**ERBITI DUBAIN:** Abian da 2017ko txirrindularitza denboraldia. Imanol Erbiti (Movistar) Dubaiko Tourrean dabil. Bestalde,

Valentziako Itzulia Pablo Urtasunek zuzendari moduan debutatu du, Team Ukyo taldearekin.

&gt;&gt;

## AGAK Altsasuko txapelketan aritzeko gonbitea egin du



Aurreko urteko partaide batzuk.

### III. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketan izena ematea zabalik dago otsailaren 11ra arte

Aurreko bi edizioetan izandako arrakastaren ondoren, aurtengoa ere Altsasuko Gazte Asanbladak, Pilotajauku klubaren laguntzarekin, III. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketa antolatzea erabaki du.

Izan ere, aurreko urtean guztira 36 bikote lehiatu ziren II. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketan, 24 bikote 2. mailan eta 12 bikote lehen mailan. Txapelketak ikusmin handia piztu zuen eta finalean, esaterako, 300 ikusletik gora bildu ziren, sekulako giroan. 2. Mailako finalean Martinez eta Flores izan ziren txapeldunak eta lehen mailakoan Murgiondo eta Nabarro.

Aurtengo txapelketa, III. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketa, otsailaren 17an hasiko da eta maiztasunaren 6an jokatu dira final handiak, Altsasuko Alde Zaharreko festetan. Aurtengoa atxilotutakoak gogoan izan nahi dituzte, "Oihan, Adur eta Jokin frontona!" leloarekin.

### Emakumeak ere

Txapelketa lau mailatan jokatu da: lehen maila, bigarren maila, hirugarren maila eta, nobedade moduan, nesken maila. Partidak ostiral arratsalde eta gauetan eta domeka arratsaldetan jokatu dira, Burunda frontoian.

### Izena ematea

Otsailaren 11ra arte, 646 772 899 telefonoan edo altsasukogaztea-sanblada@gmail.com e-postan.

Pilota

## Bakaikoa, herritarren aurrean

Zilarrezko Binakako Txapelketako partida jokatu da gaur Etxarri Aranatzan, 20:00etan. Joanes Bakaikoa lanean ikusteko aukera izango dute etxarriarrek

Joanes Bakaikoa berriki debutatu du Asegarcerekin. Hain zuzen ere, Zilarrezko Binakako Txapelketan aritzeko debutatu zuen aurrelari etxarriarrek, Labriten. Baina jaioterrian, etxean jokatzek, beste plus bat dauka. Eta hori dastatzeko aukera izango du Joanes Bakaikoa.

Izan ere, Etxarri Aranazko Udalak eta Asegarcerek, Gure Pilota Elkartearekin batera, pilota jaialdia antolatu du gaur, ostiralean, Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekuan. Lehenik eta behin Gure Pilota Elkarteko pilotarien arteko partida jokatu da, eta, ondoren, Zilarrezko Binakako 4. jardunaldiko partida jokatu da. Joanes Bakaikoa eta Ladis Galarza larraundarrak Dario eta Jaunarena izanen dituzte aurkari. Pilota jaialdia 20:00etan hasiko da eta prezioa 10 eurokoa izango da.

Joanes Bakaikoa eta Ladis Galarzak oraindik ez dute garai-



Joanes Bakaikoa etxean jokatu du.

penik lortu. Igandean, Ogetan, Lasok eta Iturriagak 22 eta 6 irabazi zieten Bakaikoari eta Galarza ordezkatu zuen Apraizi. Ea herritarren babesarekin txapelketako hasierako ligaxkako lehen puntua lortzen duten.

### Martija gaur Donostian

Bestalde, Zilarrezko Binakakoaren barruan, Julen Martijak eta Errandoneak Laso eta Iturriaga izango dituzte aurkari gaur; Donos-

tian, 22:00etan (ETB1). Astelehenean, Tolosan, Arteaga II.ak eta Erasunek 22 eta 6 irabazi zieten Martijari eta Errandoneari.

Zilarrezko sailkapenean, Lasok eta Iturriagak 3 puntu dituzte, Arteaga-Erasunek, Dario-Jaunarenak eta Errandonea-Martijak bina puntu, Elordi-Erostarbek, Peña II.a-Salaberrik eta Ugaldede-Martinezek puntu bana eta Bakaikoa eta Ladisek ez dute punturik.

&gt;&gt;

## Binakakoan puntuak garesti: Ezkurdia eta Zabaleta irabaztera derrigortuta



Larunbateko partidak irudi ikusgarriak utzi zituen. J.A. HERNANDEZ

Ezkurdia-Merino eta Elezkano-Zabaletak larunbatean Labriten jokatuak (21 eta 22) ikusgarriak izan zen. Asteburuan bi bikoek puntuatu nahi dute

Sekulako partida, ikusgarria, emozio gehien izan duena izan zen larunbatean Ezkurdiak eta Merinok Elezkano eta Zabaletaren kontra jokatuak.

Hasieran makina bat akatsegin zituzten. Pare pare aritu ziren lau pilotariak. Horren isla, partidak izan zituen berdinketak. 11 aldiz berdindu zuten. Azkeneko tantoak ikusgarriak izan ziren eta 21eko berdinketa eta gero, lau pilotariak txikituta zeuden. Puntu bana merezizuten bi bikoek, baina azken tantoa Danel Elezkanok egin zuen,

ezker gantxoarekin. Pilota zaleek zutik eta txaloka despeditu zituzten lau pilotariak.

### Sailkapena

Estu jarraitzen du txapelketak. Irribarria eta Rezusta daude buruan (7 puntu). Elezkano II.a-Zabaletak eta Artola-Albisuk bosna puntu dituzte eta 4 puntu dituzten 4 bikote daude: Ezkurdia-Merino II.a, Olaizola II.a-Untoria, Altuna II.a-Barriola eta Bengoetxea VI.a-Larunbe. Azkenik, Urrutikoetxea-Imazek hiru puntu dituzte.

### Datorrena

Gaur, Donostian, Ezkurdiak eta Merinok Irribarria eta Rezusta

### Binakakoa. 10. jardunaldia

**Irribarria-Rezusta/Ezkurdia-Merino** (ostiralean, 22:00etan, Donostian. ETB1)

**Bengoetxea VI.a-Larunbe / Urrutikoetxea-Imaz** (larunbatean, 17:45ean, Iruñean)

**Victor-Albisu/Altuna III.a-Barriola** (larunbatean, 17:30ean, Idiazabal)

**Olaizola II.a-Untoria/Elezkano II.a-Zabaleta** (igandean, 17:00etan, Bilbon. ETB1)

liderrak izango dituzte aurkari. "Partida oso gogorra izango da, Merino eta Ezkurdia bikain dabiltzalako" azaldu du Irribarriak. "Azken bi partidak xehetasun txikiengatik ihes egin zaizkigu. Argi dugu, ostiralean irabazi beharra dugu. Oso kontzentratuta atera beharko gara, ezinbesteko partida delako" adierazi du Ezkurdiak.

Bestalde, igandean, Bilbon, Elezkano II.ak eta Zabaletak Olaizola II.a eta Untoria izanen dituzte aurkari. Seigarren puntua lortu nahi dute Elezkanok eta Zabaletak, eta bosgarrena Olaizola II.ak eta Untoriak. Hortaz, beste bi partida ikusgarriren aurrean gaude.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

17. JARDUNALDIA

**LAGUN ARTEA 3 - ARTAJONÉS 0**  
**ETXARRI ARANATZ 1 - DONEZTEBE 1**  
Lakuntzan, Lagun Artea irabaztera atera zen hasieratik. Salgadok 5. minuturako aurreratu zuen Lagun. Artajonés kontraerasok sortzen ahalegindu zen, baina ez zuen fruiturik izan. Atsedendia baino lehen Anderrek bigarrena sartu zuen eta bigarren zatian Garik Lagunen hirugarrena, garaipen ederra lortuaz.  
San Donato zelaian Etxarrik agintea hartu zuen, baina Doneztebe aurreratu zen markagailuan. Etxarrik Doneztebe estutzen jarraitu zuen eta Mikel Goikoetxeak berdindu egin zuen. Aukera gehiago izan zituen Etxarrik, baina puntu banaketarekin despeditu zen lehia.

Sailkapena &gt;&gt;

1. Bidezarra	40 p
3. Lagun Artea	30 p
6. Etxarri Aranatz	25 p

Asteburuko jardunaldia

**DONEZTEBE - LAGUN ARTEA**  
(Larunbatean, 17:00etan, Donezteben)  
**BERIAIN - ETXARRI ARANATZ**  
(Igandean, 18:00etan, Beriainen)

ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa

15. JARDUNALDIA

**ALTSASU 2 - BETI KOZKOR 2**  
Altsasuk eta Beti Kozkorrek partida lehiatuta jokatu zuten Dantzalekun. Altsasukoak kontrako atera errazago iritsi ziren eta 25. minutuan Nabielek Altsasuren lehena sartu zuen. Beti Kozkorrek berehala berdindu zuen. 2. zatian berdinduta, Gorkak Altsasuren bigarrena sartu zuen eta Betik bina berdindu zuen 10 minuturen faltan.

Sailkapena &gt;&gt;

1. San Jorge	33 p
6. Altsasu	17 p

Asteburuko jardunaldia

**SAN JORGE - ALTSASU**  
(Igandean, 16:30ean, Sanduzelain)

EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA

CASTEJÓN 3 - ALTSASU 1

Sailkapena &gt;&gt;

1. Osasuna	37 p
11. Altsasu	12 p

Otsailaren 12ko jardunaldia

ALTSASU - PEÑA SPORT

ELOMENDIKO TXAPELKETA

16. JARDUNALDIA

ZALDUA 0 - BIDEZARRA 3

Sailkapena &gt;&gt;

1. Unziti	40 p
4. Zaldua	28 p

Asteburuko jardunaldia

AGERI - ZALDUA (Ukarren)

Areto futbola

## Liga bueltan: Magna Gurpeak Gran Canaria hartuko du gaur

Lehen mailako areto futboleko liga bueltan da, aste bateko atsedendiaren ondoren. Gaur, ostiralean, lehen mailako 18. jardunaldia izanen du jokoan Magna Gurpea Xotak. Sailkapenean 6.a da talde berdea eta sailkapenean 13.a den Gran Canaria taldea hartuko du, gaur, ostiralean, 20:30ean, Anaitasuna pabilioian.

### Errege Kopako finalerdiak

Asteartean, Errege Kopako finalerdietako itzuliko partida jokatu du Magna Gurpeak Burela taldearen kontra, 20:00etan, Anaitasunan. Joaneke partidaren talde berdeak 1 eta 5 irabazi zion Burelari.

## Atletismoa

## Izaskun Beunza seigarrena Nafarroako Kros Luzean

Lizarran jokatuako proban Antonio Etxeberria (28:54) eta Maitane Melerok (26:42) gailendu ziren

Asteburuan Nafarroako Kros Luze-ko Txapelketa jokatu zen Lizarrako Los Llanos parke zoragarrian.

Gizonezkoek 9,4 km zituzten aurretik eta azkarrena Beste Iruña taldeko Antonio Etxeberria izan zen (28:54). 23 segundo aterazizkion Real Sociedad taldeko Javier Nagorri (29:17). Beste Iruñako Ariz Munarriz etxarriarra 59.a sailkatu zen (34:49) eta Beste Iruñako Mikel Astiz ihabartarra 60.a (34:50).

Emakumezkoek 7,3 km zituzten aurretik. Maitane Melerok eta Vane-



sa Pachak lehia oso estua izan zuten eta, azkenean Grupompleo Pamplo- na Atletico taldeko Maitane Melerok gailendu zen (26:42), Pachari 16 segundo aterata (26:58). Beste Iruña taldeko Izaskun Beunza olaztiarra 7.a sailkatu zen (29:14).

## Beñat Katarain txapeldun Donostian

II. Herri Ametsa Talaia Mendi Krosa irabazi zuen igandean

Igandean, Donostian, II. Herri Ametsa Talaia Mendi Krosa jokatu zen, 14,5 km-ko proba. 215 korrikalarik osatu zuten proba eta Beñat Katarain lakuntzarra izan zen txa-



pelduna (1:06:49), Ignacio Tanco donostiarrari minutu pasa aterata (1:07:58). Emakumezkoetan Eskoriatzako Alizia Olazabal (1:22:04) gailendu zen. Denboraldiari primerako hasiera eman dio korrikalari lakuntzarrek.

## Mendi lasterketak

## Triku Trailerako izena ematea zabalik

Ekainaren 25ean jokatu da proba, Etxarri Aranatzan, baina 350 partehartzaileen muga dagoenez izena ematea lehenbailehen egiteko deia egin du antolakuntzak

Gaur, otsailaren 3an, goizeko 8:00etan zabalduko da Etxarri Aranatzan ekainaren 25ean, 9:30ean, jokatu den Triku Trail mendi lasterketan (21 km) izena emateko epea. Antolakuntzak gehienez 350 korrikalari onartzen ditu eta azkenaldian Etxarri Aranazko campingean antolatzen den probetan aritzeko dortsalak agortu izandirenez, probaren arrakastaren seinale, bertan parte hartu nahi dutenei izena-ematea lehenbailehen egiteko gomendioa luatu nahi die antolakuntzak.

Lasterketaren antolatzaileen hitzetan, pena da korrikalari gehiagok parte ezin hartzea, eta asko kanpoan gelditzea; baina instalakuntzak eta inguru pribilegiatu honen oreka zein jasagarritasuna kontutan edukita eta korrikalariari eman nahi izaten dioten tratu hurbila lehenetsiz, aurtien ere korrikalari kopurua dagoenean, 350 partaideetan, uztea erabaki dute.



## Izena emateko

Triku Trail Kirol Taldearen web orrian (<https://trikutrail.wordpress.com/>) edo [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) web orrian. Txip horia duten federatuek 20 euro, txip horia ez duten federatuek 22 euro, txip horia duten federatuek 23 euro eta txip horia ez duten federatuek 24 euro.

## Antolakuntzarik nabarmenenaren aipamena

Aurreko asteazkenean Kirol Probak urteroko sari banaketan antolakuntzarik nabarmenenaren aipamena jaso zuen Triku Trail Kirol Taldeak.



## Sakandarrak ongi Idiazabalen

Sakandarrak 37. Idiazabalgo Herri Krosean (10,12 km)

## PROBA ABSOLUTUA

1.	Aitor Mimenza (Elorrio)	35:50
22.	Raul Audikana (Olaz.)	36:31
28.	Sergio Garcia de Eulate (Alts.)	36:47
118.	Fran Araña (Arb.)	41:09
300.	Manuel Larraza (Etx.)	46:23
321.	Aingeru Azazeta (Alts.)	47:22
447.	Fco. Manuel Campos (Etx.)	51:40
522.	Ainhoa Markinez (Olaz.)	1:01:28

## KADETEAK

1.	Iker Mintegi (Alts)
----	---------------------



Sergio Garcia eta Iker Mintegi, igandean Idiazabalen. LASTERKETAK

Raul Audikana izan zen sakandarren artean azkarrena, helmugan 22.a eta Iker Mintegik kadete mailako proba irabazi zuen

Igandean 529 korrikalarik osatu zuten 37. Idiazabalgo herri krosa.

Elorrioko Aitor Mimenza (32:50) eta Hernaniko Maitane Guerrero (38:53) izan ziren txapeldunak. Sakandarrek lan polita egin zuten eta azkarrena Raul Audikana olaz-

tiarra izan zen, helmugara 22. postuan sartu eta gero (36:31).

Aipatzekoada, bestalde, Iker Mintegi altsasuarrak Idiazabalgo kadete mailako proba irabazi zuela.

# Ongi etorri

SAKANAKO HERRI ESKOLEN KOMUNITATERA

aurrematrikulazio epea otsailaren 13tik 17ra arte

Irurtzungo Atakondoa HE	Urdaingo HE	Altsasuko Zelandi HE
<a href="http://atakondoa.educacion.navarra.es">http://atakondoa.educacion.navarra.es</a> cpirurtz@educacion.navarra.es 948500228 GE: atakondoaapyma@gmail.com	cpurdiain@educacion.navarra.es 948468345 GE: geurdiain@gmail.com	<a href="http://zelandieskola.educacion.navarra.es">http://zelandieskola.educacion.navarra.es</a> cpaltsasu@educacion.navarra.es 948564839 GE: zelandi.apyma@gmail.com
Lakuntzako Luis Fuentes HE	Iturmendiko Arrano Beltza HE	Uharteko San Miguel HE
<a href="http://lakuntzakoeskola.educacion.navarra.es/web1">http://lakuntzakoeskola.educacion.navarra.es/web1</a> cplakunt@educacion.navarra.es 948576020-GE: apyma@hotmail.com	cpiturme@educacion.navarra.es 948563414 GE: iturmendikogurasoak@gmail.com	<a href="http://uhartearakilgoeskola.educacion.navarra.es">http://uhartearakilgoeskola.educacion.navarra.es</a> cpuharte@educacion.navarra.es 948567100 GE: sanmiguelapyma@gmail.com
Etxarriko San Donato HE	Olaztiko Domingo Bados HE	Arbizuko HE
<a href="http://www.etxarrikoeskola.com">www.etxarrikoeskola.com</a> cpetxarr@educacion.navarra.es 948567003 GE: apymasandonato@gmail.com	<a href="http://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/olaztikoeskola">http://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/olaztikoeskola</a> cpolazag@educacion.navarra.es 948563307-GE: apymabados@yahoo.es	arbizukoherrieskola.blogspot.com cparbizu@educacion.navarra.es 948460763 GE: arbizukoeskolakofamiliak@gmail.com

## Txirrindularitza

## Etxeberria eta Zia Pistako Espainiako Kopara

## Gipuzkoako Bio Racerren ongi



MARTIN EARLY

Azarotik ilbeltzera bitartean jokatu zen Gipuzkoako Pistako Bio Racer Saria Challengea, Donostiako belodromoan. 8 proba izan ziren guztira eta azkena ilbeltzaren 15ean jokatu zen. Bertan lehiatu ziren hainbat txirrindulari sakandar. Saillapen orokorrean, gizonzkoen junior mailan Unai Iribar (Limousin) izan zen txapel-duna (250 puntu). Quesos Albenizeko Mateo Gonzalez zazpigarrena sailkatu zen (138 puntu) eta Intersport Irabiako Josu Etxeberria hamargarrena (122 puntu). Quesos Albenizeko Hodei Zia 31.a sailkatu zen (58 puntu). Emakumezkoetan, aldiz, Ekhiñe Rivas izan zen onena (213 puntu). Bakarne Gonzalez altsasuarra (Gipuzkoa Ogi Berri) laugarrena sailkatu zen (184 puntu) eta CAF Transport Engineering taldeko Joana Irastorza etxarriarra hogeigarrena (63 puntu).

## Lehenengo jardunaldia asteburuan jokatu da, Galapagarren

Abian da 2017ko pistako txirrindularitza denboraldia. Asteburu honetan emango zaio hasiera, hain zuzen ere, Pistako Espainiako Kopari. Kopak hiru jardunaldi izango ditu: otsailaren 3an eta 4an Galapagarren, martxoaren 10ean eta 11n Tafallan eta martxoaren 31n eta apirilaren lehen Donostian. Ondoko kategorietan jokatu da: kadeteak, juniorrak eta eliteak.

Nafarroako selekzioak hautatu ditu zein txirrindularik ordezkatu duen Nafarroa Pistako Espainiako Kopan. Tartean ariko dira Josu Etxeberria iturmendiarrak (Aralar-Intersport Irabia), eta Hodei Zia (Burunda-Quesos Albeniz). Aurreko urtean Euskadiko selekzioak irabazi zuen Pistako Espainiako Kopa. Hain zuzen ere Euskadirekin ariko da Burunda-Quesos Albeniz klubeko Mateo Gonzalez, Albenizekoa.

## Pisu jaurtiketa



## June Kintana Kluben Arteko Errege Kopan

## Pisu-jaurtiketan seigarrena sailkatu zen bakaikoarra

Larunbatean Pista Estaliko Kluben Arteko 35. Errege Kopa jokatu zen Gallurren (Madril). Bertan estatuko atletismo klub onenek hartu zuten parte, tartean June Kintana Larraza bakaikoarraren taldea, Grupompleo Pamplona Atlético.

June Kintanak pisu-jaurtiketa proban hartu zuen parte. Ursula Ruiz izan zen txapel-duna, 4 kilo-

ko pisua 16,31 m jaurti eta gero. June Kintana 6.a sailkatu zen, pisua 11,95 m jaurtita.

Atleta guztiek egindako lana kontuan hartuta, gizonzkoetan Futbol Club Barcelona taldeak irabazi zuen kopa (90 puntu) eta Grupompleo Pamplona 4.a sailkatu zen (57 puntu). Eta, emakumezkoetan, Futbol Club Barcelona taldearendako ere izan zen kopa (89 puntu). June Kintanaren Grupompleo Pamplona 5.a sailkatu zen (44 puntu).

## Mendi lasterketak

## Lakuntza-Aralar mendi lasterketako ibilbidea egiteko gonbita, bihar

## Bihar, larunbatean, 8:00etan proba luzea egiteko (25 km) eta 9:30ean proba laburra egiteko (13 km)

Ekainaren 11n jokatu da, Zabarlarte klubak antolatuta, Lakuntza-Aralar mendi lasterketa. Aurten ere



Korrikalariak Lakuntza-Aralarren.

bi ibilbide egiteko aukera izango dute korrikalariak: luzea (27,7 km, 1.114 m desnibel+) eta laburra (13,3 km, 640 m desnibel+).

Aurten lasterketako ibilbide luzean aldaketa bat sartu dute antolatzaileek, 9. Kilometroan. Aldaketa erakusteko eta goiz polita pasatzeko asmoarekin larunbaterako Lakuntza-Aralar mendi lasterketako ibilbideak egiteko gonbitea egin du Zabarlartek. Goizeko 8:00etan ibilbide luzea egingo dutenak aterako dira eta 9:30ean, aldiz, ibilbide motza egingo dutenak.

## Izena emateko

Bukaeran dutxa zerbitzua eta auzatea egongo da. Ekimena doanekoa da baina guztia behar bezala antolatzeko aurretik izena emateko deia egin du Zabarlartek, ondoko e-postan: [lakuntza.aralar@gmail.com](mailto:lakuntza.aralar@gmail.com)

## Txirrindularitza

## Alex Unzilla etxarriarra afizionatuetara

## Quick Step Telcom Gimex taldean ariko da

Burunda klubean zebilen Alex Unzilla, junior mailan. Etxarriarrak mailaz gora egitea lortu du eta afizionatuetara egin du salto. Quick Step Telcom Gimex taldean ariko da Unzilla, 23 urtez azpiko mailan. Txirrindulari bezala trebatzea, afizionatuen mailari eta abiadurari tamaina hartzea eta ikastea, hori izango da bere lana.

## Tourra, Movistar Team taldearen helburu



## Aurreko astean aurkeztu zuten 2017ko Movistar Team taldea. Jose Luis Arrieta zuzendariak, Imanol Erbitik eta Gorka Izagirrek bertan jarraitzen dute

Tourra. Hori da 2017ko Movistar Team taldearen helburu nagusia. Quintanari egutegi estua jarri diote, lehendabiziko Giroa eta gero Tourra osatuko baititu, baina argi dute Movistarren, Giro on bat eginda ere, Quintanak Tourrerako hautagai nagusietako bat izaten jarraituko duela.

## Sakandarrak

Lasterketa guztietan aurrean egoitea eta talderik onena izatea, horiek

dira beste asmoak. Quintana eta Valverde taldeburuei laguntzeko egongo diren txirrindularien artean Hiriberriko Imanol Erbitik eta Zor-dian bizi den Gorka Izagirre daude. Bestalde, zuzendari lanetan jarraituko du Jose Luis Arrieta uharte arakildarrak.

## Emakumeen Bira Aralarren

Emakumeen Bira maiatzaren 17tik 21era bitartean jokatu da. Pro Tourreko Proba izango da aurten. Maiatzaren 20ko etapa Etxarri Aratzen hasi eta Aralarko San Migelen despidituko da, Lekunberrietik igota (58 km).

## Non erabili

## EDERNE ILEAPAINDEGIA

## LAKUNTZA

30 €ko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Ilepaindegiko zerbitzuekin, makilaje ukitua doan.

## GK

%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan.

## XAGU

## ALTSASU

%5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

## LIBURUNDA

## ALTSASU

%5eko deskontua papertegian.

## GOIKO LOREDENDA

## ALTSASU

30€tik gorako erosketetan landare bat opari. Eskaintza ez metagarria.

## MARI JOSE ILEAPAINDEGIA

## ARBIZU

Ile tratamenduak 5 €tan

## FRUTIS FRUTA DENDA

## IRURTZUN

%10 eko deskontua fruitu tropikaletan.

## EROSKI BIDAIK

## ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hoteletako eta garraio hutsen erreserbakizanezik. Eskaintza ez metagarria.

## LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

## URDIAN

50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

[www.guaixe.eus-en](http://www.guaixe.eus-en) zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€  
948 564 275

**BIKAIN**  
GARAJEA, S.A.L.  
948 460 037 Arbizu  
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak  
**SALMENTA**

Mekanika  
Elektrizitatea  
Txapa  
Margotzea

## Kintotan, dantzarako doinuak

Gaur, 23:00etan, Olatzagutiko gaztetxean

Maisuena gaztetxeak bi diskoren aurkezpen kontzertuak hartuko ditu gaur: En Tol Sarmientoren (ETS) *Beldurrik ez* eta Guda Dantzaren *Labarraren ertzean*. ETSk ska, rock eta reegae musika jorratzen duen Arabako Errioxako Iekora herriko taldea da. 2005ean abiatu zuen boskoteak musika bidea. Maketa bat eta iraupen luzeko *Hacia La Luna* (2012) eta *Zure Mundua* (2014) diskoen ondoren, Olatzagutian hirugarren lana aurkeztuko dute.

Guda Dantza taldeak Bizkaitik musika beltzaren eta jamaikarra-



ren uztarketa ekarriko du Maisuenera: disko, soul, funk eta beste-lako doinuak ska eta reggaearekin ezkontzea da haien proposamena. Seikotea 2012tik dabil bere musika eskaintza emanaldi zabaltzen, Bizkaian batez ere. Gaur euren bigarren disko argitaratu berria defendatuko dute.

## Haurrendako album ilustratuen Etxepare lehiaketa deitu dute



Nafarroako 20 toki-erakunderen Euskara Zerbitzuek, Sakanako Mankomunitatearena barne, haurrei zuzendutako album ilustratuen Etxepare Saria deitu dute. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek bakarka edo ilustratzaile-idazle tandemean egin dezakete, beti ere, euskarazko, jatorrizko eta argitaratu gabeko lanak aurkeztuta. Egileek nahi beste lan aurkez ditzakete, formatu librean. Hori bai, lanak ez dira 20 cm x 21 cm baino txikiagoak izanen, eta gutxienez 15 orrialde bikoitz izanen dituzte (bakarrik kontuan hartuko dira barneko orrialdeak). Testuek ez dituzte

4.000 karaktere baino gehiago edukiko (zuriuneak barne). Antolatzaileek jakinarazi dutenez, azken lau deialdietan saritutako sortzaileek ezin dute lehiaketara aurkeztu.

Parte-hartzaileek lehiaketara azken bertsio inprimatua aurkeztu beharko dute, bukatutako albumean agertuko liratekeen testu zein ilustrazioekin (koadermatzea ez da beharrezkoa, grapa, uztai, espiral eta abarrek aurkez daitezke). Maketaren kopia digitala, .pdf estensioarekin, baita albumaren testu word formatuan memoria giltza batean aurkeztu beharko dira. Lanak plika sistemaren

bidez aurkeztu beharko dira, egileen datuekin, harremanetarako telefonoarekin eta bio-bibliografiarekin batera. Guztia helbide honetara bidali behar da: ETXEPARE SARIA, Leitzako Udala-Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880 Leizta (Nafarroa). Lanak maiatzaren 19ra arte aurkeztu daitezke. Epaimahaiak erabakia garrilararen 30erako jakinaraziko du bere erabakia. 5.000 euroko sari bakarra izanen da, egile eskubideen aurrerapen moduan. Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du euskaraz, eta argitalpenean Etxepare sariaren aipamena egingen da.

## Punk-rocka gaztetxearen urteurrenean

Bihar, 23:30ean, Iturmendiko Ximona gaztetxean

Iturmendiko gaztetxearen seigarren urteurreneko ospakizunak despeditzeko kontzertu pare bat izanen da. Iruñeko El Sonido de la Metralla punk-rock taldeak *Nada más cerca de la realidad* disko argitaratu berria aurkeztuko dute Ximona gaztetxean. Bigarren lana da Suntsiketa, El Tronode Judas, Josu Jon imas, Tinko, hainbat elektrotzarangetan



eta bestelakoetan eskarmentua pilatu duen boskote honendako.

Sofa-kaos taldeak bere kontzertuarekin biharko punk-rock errazio bikoitza osatuko du. Antsoaingo laukotea 2012an sortuzen. Haien bigarren lanean Alerta Gorrikotaldeko kideen kolaborazioak daude.

## bazterretik

Argiñe Berastegi

### Graffiti Murala

2015EAN JEAN MICHEL BASQUIAT ARTISTA URBANOAREN LANAK BILBOKO GUGGENHEIM MUSEOAN ERAKUTSI ZIREN. ETA, HORREGATIK MURALAREN PRESTIGIOA AHALBIDETZEN DUEN ADIBIDETZAT HARTU NAHI DUT.

2015ean Jean Michel Basquiat artista urbanoaren lanak Bilboko Guggenheim museoan erakutsi ziren. Eta, horregatik muralaren prestigioa ahalbidetzen duen adibidetza hartu nahi dut. Murala, aspalditik datorren diziplina artistikoa da. Arte mota edo egiteko moduhonen lehen azarnak, prehistorian, kobazuloetako paretetan topa ditzakegu. Beranduago, antzi-

naroan, paretetan eta hormetan egindako margoak oso ohikoak izan ziren. Gotikoan aldiz, bidriren ospeagatik muralak indarra galdu zuten. Baina, errenazimendu garaian, muralak berriro bere lekua berreskuratu zuten. Horren adibide "Capilla Sixtina"-ko mural erraldoia dugu.

Orain dela ez asko, muralak Latinoamerikako iraultzetan ezinbesteko papera jorratu zuten, zenbait kasutan, iraultzaren ikono bilakatu delarik. Kubako mural-propagandistikoak esanguratsuak dira ideia hori indartzeko garaian.

Gaur egungo artista urbanoek 90. hamarkadan kaleak graffitiz betetzen zituztenak dituzte aitzindari, eta egun arte galeriek eta markak euren lanak eskatzen dituzte, gure espazio publiko zein pribatuak apaintzeko. Kale eta espazioetan



euren aztarna uzten dituzten artista hauek arkitektura urbanoa mihi-se moduan erabiltzen dute. Graffiti-Muralek kaleak kolorez, alaitasunez eta esanahiez betetzen dituzte. Konposaketa lineal eta sotilek espazioa eralda dezakete. Auzo baten bizitza alda dezake. Espazio

ahaztu bat, bilgune bilakatu. Bere dimentsio eta espazio arkitektonikoetan duen lekuagatik, arte murala giza-kulturaren bozgorailua ere bada. Beraz, graffiti, bere izaera artistiko eta monumentalean, pintura muralaren forma garaikide eta urbanoa kontsidera dezakegu.

## Claverrek herrian aurkeztuko du liburua

Hilaren 20an, astelehenean, 19:00etan, Altsasuko Haritza tabernan

30 uharte. Guztietan ere autorik ez daudenak. Horien berri jasotzen da Atlas de islas sin coches.

Primera parte (2016, Saure) liburuan. Ander Claver Goikoetxea altsasuarrak eta Janire Nogales Prieto gernikarrak idatzi zuten liburua. Irla bakoitzaren berri ematen duen orri bana dago liburuan eta, aldamenean, Laura De la Cruz Gonzalezek egindako mapa-ilustrazioa dago. mArkatz liburu-dendaren eta Haritza tabernaren elkarlanari esker liburua aurkeztuko du Claverrek. Elkarlan horregatik aurrenekoan liburua salgai dago eta bigarrean liburuen aurkezpenerako gonbidapenak eskuragai daude.



**G** asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: % 25 Min: 7 Max: 13	euria: % 50 Min: 8 Max: 14	euria: % 90 Min: 9 Max: 15	euria: % 15 Min: 4 Max: 12	euria: % 30 Min: 8 Max: 10	euria: % 90 Min: 3 Max: 6	euria: % 95 Min: 3 Max: 10

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	17.5	-4	22.8
Etxarri A.	17	-7.5	20.2
Altsasu	14.5	-5.5	13.5
Aralar	7.4	-6.7	11.2
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
4	12	18	26

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com  
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com

**Acrylcolor**  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

**Bazkide zozketa**

**OTSAILEKO SARIAK:**

**1. SARIA:**  
Ekainberri: 2 sarrera.  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

**2.,3. ETA 4. SARIA:**  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

Ekain berri

IRURTZUN XOTA E.S.

CAMPING ARTAZA

lacturale

g

gaztezulo

## >> 11 galdera

### Idoia Hualde Iglesias

Nafarroako Zaldi Raid modalitateko txapelketa

Maidar Betelu Ganboa



**1.Noiz hasi zinen zaldiekin?**  
Lehendabiziko zaldia nire gururaz ekarri zuten nik 4 urte nituela. Gogoratzten dut ekarri baino lehen nola eskatzen niela, zaldia ekartzeko. 7 urterekin ikastaroak hartzen hasi nintzen, Bikuñako hipikan. 9 urterekin eman zidaten aukera Raid modalitatean aritzeko. Bizpahiru urtera Euskadiko Raid Txapelketa irabazi nuen nire mailan. Guaixen ere ater nintzen orduan (kar kar). Baina gero, ikasketak zirela, lehiatzeaz utzi nion, 14 urterekin. Iaz raid probetara bueltatzea eta Nafarroako txapelketan aritzea erabaki nuen.

**2. Eta nolako buelta, Nafarroako txapelketa izan baitzara. Zorionak!**  
Eskerririk asko! Larunbatean jaso nuen saria, Iruñeko Tres Reyes Hotelean, Nafarroako Hipikako Federazioaren galan.

**3. Zer da raida?**  
Erresistentziako lasterketak dira, hainbat etapakoak. Partaide guztiak aldi berean ateratzen dira eta ibilbidea markatuta dago. Baso eta xendetatik ibiltzen zara. Bi puntutan taldearen asistentzia jaso dezakezu. Helmugara iristerakoan zaldiari kontrola egin behar zaio, izan ere, zaldia egoera onean iristea da baloratzen dena. Zaldiaren pultsazioak 54 pultsazioetara jaisten direnean, albatariari deitu eta lasterketa bukatzearen denbora hori markatuko du.

**4. Zaldia ezagutzea eta kontrolatzea ezinbestekoa da, hortaz.**  
Bai. Ordu askoko entrenamenduak egin behar dira. Nafarroako Txapelketan bilasterketa jokatu ziren, 40 km-koak biak, Añezkarren. Lehen lasterketa Baikorrekin egin nuen, baina hankan mina hartu

zuen eta bigarrena Indarrekin egin nuen. Asistentzia lanetan Errotaingo Sebas Goikoetxea nire lan-kidea eta gure bezero batzuk ibili ziren. Bigarren etapako tarte handi batean 16 urteko Nahia Lezea gure bezeroak ere parte hartu zuten, Fletxarekin. Oso ongi ibili zen. Asmoa da maila hartzen ari diren gure ikasleekin aurten raid probetan aritzea. Eta jakina, aurtengo Nafarroako Txapelketan ere lehiatzea.

**5.Noiz sortu zenuten Errotain Zaldi Ibilbideak?**  
2013.an sortu genuen Sebas Goikoetxeak eta biok. Urdaingo errotan dugu egoitza. Egun 13 zaldi ditugu. Zaldiz ibiltzen ikasteko klaseak ematen ditugu, ibilaldiak egiten ditugu... Udan geroz eta jende gehiago animatzen da, landetxeetan dagoen jende asko. Eta gero urtean barna hemengo jendearekin ibiltzen gara. Facebookean (Errotain) edo www.errotain.com web gunean gaude.

**6. Zergatik igo beharko ginatete denok zaldi batetara?**  
Ez da behartu beharrek gauza bat, disfrutatzen da. Zaldiak zu eramatearen sentazio hori gozama da, eta, bestetik, altuera horretatik paisaiak disfrutatzen auzerazoragarria da. Zaldian ibiltzeak lasaitzen du, estresa kentzen du. Ditugun basoetatik paseoa eman ondoren berrituta etortzen zara. Luxua da gure parajeetan ibiltzea.

**7. Errotainen beste egitasmoren bat al duzue?**  
Badaramagu urte batzuk Aste Santuan eta oporretan haurrentzako campusak egiten. Bestalde, Nafarroako Hipika taldeekin eta ostalaritza eta zerbitzuekin bilduta,

ANATRE sortu dugu (Asociación Navarra de Turismo Rural y Ecuestre, www.anatre.org). Gure asmoa, zaldi turismoa egiten dutenendako produktu bat sortzea izan da. Horrela, Nafarroa osotik zaldigaietan ibilaldiak egiteko proposamena prestatu dugu.

**8.Zaldi gaineko turismoa gora egiten ari da?**  
Frantzia eta Alemanian zaletasun handia dago. Beraien lan egiteko modua aztertu dugu, moldatu dugu eta www.anatre.org web gunean gure eskaintza prestatu dugu. Bilatzen duguna da turismoa zaldi gainean egiten duen jende hori erakartzea. Nafarroak ematen dituen aukerak izugarriak dira: 100 km pasa eskasetan denetarik duzu: mendia, basoa, basamortua... Nafarroa zaldi turismoan potentzia bat izan daiteke eta animatu gara.

**9. Turistak erakarriko dituzuenaren esperantza duzue?**  
ANATRE elkarrekin Nafarroan prestatutako ibilbideen mapa FITUR turismo azokan aurkeztu genuen eta ordutik gure weborriak bisita asko izan ditu.

**10.Sakanako Donejakue bidea berreskuratu nahi da ere...**  
Sakanako Garapen Agentziak Sakanako Donejakue bidea berreskuratu nahi du. Bidelagun elkarrean gaude eta Sakanako turismoa sustatzeko proiektu horiek begi oso onez ikusten ditugu. Ea aurten martxan dagoen.

**11. Zer ematen dizute zaldiek?**  
Dena. Konplizitate bat sortzen da beraiekin ez duzuna beste inon aurkitzen. Eta lanbide bezala, ba gustatzen zaizun zer baitetan lan egitea luxu bat da.

**Matrikulazio kanpaina**

gk KOMUNIKAZIOA

ESKUJORRIAK DIPTIKO TRIPTIKO

IRAGARKIAK | KUÑAK | M

KARTELAK MAILINGAK

BANNERRAK

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107  
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus